DEFENDA-TZAILEAK BABESTEN

GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEN DITUZTEN PERTSONEN BABES-PREMIEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen Laguntzarako** Batzordea

Argitalpen hau Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeak (CEAR-Euskadi) egina da, proiektu honen baitan: **“Defendatzaileak babestea: asilo-eskubidea eta aldi baterako babesa, gizarte-eraldaketarako tresnak”.**

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen Laguntzarako** Batzordea

Txosten hau CEAR-Euskadik egina da. Honako hauek prestatu dute: Itziar Caballero González, Beatriz de Lucas Larrea eta Vincent Vallies, Leire Lasa Fernándezen lankidetzarekin.

Edizioaren urtea eta lekua: 2018, Bilbo.
Diseinua: Yolanda Tamayo
Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Maquetazioa: Erreka Multimedia S. Coop

Finantzazioa:

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Argitalpen hau Creative Commons lizentziapean dago.

Aitortza – Ez-komertziala – Lizentzia beraren pean (2.5 España) partekatzea
Hirugarrenek argitalpen hau banatu, kopiatu eta erakuts dezakete, krediduetan argitalpenaren egileak eta jatorria aipatzen badira. Ezin da inolako etekin komertzialik lortu, eta eratorritako obrek jatorrizko lanaren lizentzia-baldintza berdinen pean egon behar dute.
2018ko ekaina.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketa-prozesu honetan parte hartu duten pertsona guztiei. Elkarrizketatutako pertsonei, gurekin beren ezagutzak eta esperientziak partekatzeagatik: Esther Domenech (ANSUR), Fabián Torres (Congreso de los Pueblos, Kolonbia), Jorge López (OASIS, Guatemala), Kerstin Reemstsma (PBI Guatemala), Lorena Cabnal (Red de Sanadoras Ancestrales del feminismo comunitario, Guatemala), Luis Pérez (ANSUR), Luis Enrique Eguren (Protection International), Marusia López (JASS eta Iniciativa Mesoamericana de mujeres defensoras), Maite Garmendia (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), Monika Hernando (Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza), Orfe Castillo (Iniciativa Mesoamericana de mujeres defensoras, Mexiko), Sinead Nolan (Front Line Defenders) eta Vincent Vallies (aholkulari independentea).

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Bilbon foku-taldean parte hartu zuten erakundeei, haiekin lankidetzan ari diren giza eskubideen defendatzaileen babesari buruzko kezkak eta azterketak partekatzeagatik: Alboan, Aldarte, Bizilur, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Emigradxs sin Fronteras, FeministAlde, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabe, Mundubat eta Paz con Dignidad. Eskerrak eman nahi dizkiegu ere Deyanira Soscué, Doris Rivera, Eduardo Castro, Luz Marina Palacios eta Yolima Bedoyari, gurekin bi egun emateagatik babes-premiei buruz hausnartzen, beren bizipen pertsonal eta komunitarioen ekarpena eginez.

Esker bereziak eman nahi dizkiegu ANSUR kolektiboari, PBIri eta Silvia Pirisi, metodologiaren diseinuan eta landalanean aholkuak emateagatik, bai eta Vincent Valliesi ere, txosten hau egiteagatik.

Espero dugu dokumentu hau lagungarria izango dela giza eskubideen defendatzaileen eta pertsona horien kolektibo eta komunitateen babesa zabaltzeko, egiten duten ezinbesteko lan hori egiten jarraitu ahal izan dezaten.



AURKIBIDEA

1. SARRERA.....6
2. ZER ULERTZEN DUGU BABESA EMATEAZ HITZ EGITEN DENEAN?.....6
3. IKERKETAREN HELBURUA.....8
4. IKUSPEGIA ETA METODOLOGIA.....8
5. IDENTIFIKATUTAKO BABES-PREMIAK.....11
5.1. Testuinguru mehatxatzailea.....11
5.2. Identifikatutako babes-premiak.....19
6. IDENTIFIKATUTAKO BABES-PREMIEN AZTERKETA.....29
7. ZENBAIT GOMENDIO.....39
8. KONTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFIA.....40

1. SARRERA

Front Line Defenders[1], erakundearen arabera, 2017an giza eskubideen 312 defendatzaile erail zituzten 27 herrialdetan. Erailketa horien % 80 lau herrialdetan gertatu ziren: Brasilen, Kolonbian, Mexikon eta Filipinetan. Bestalde, bere urteko txostenean, Front Line Defenders erakundeak dio eraildako pertsona horien % 67 lurra, herri indigenen eskubideak eta ingurumena defendatzen ari zirela, eta testuinguruan megaproiektuak, erauzketa-industriak eta enpresa handiak zeudela tartean. Erailketa horiek giza eskubideak defendatzen dituztenen aurkako egiturazko indarkeria sistematikoaren izebergaren punta baino ez dira. Herrialde askotan, pertsona horiek beren osotasun fisiko eta psikologikoa –eta beraien familia, erakunde eta komunitateen osotasun fisiko eta psikologikoa– arriskuan jartzen dituzten mehatxuak eta jazarpenak jasaten dituzte. Defendatzaileen lana deslegitimatzeko eta eragozteko gehien erabiltzen diren estrategiak kriminalizazioa eta judizializazioa dira oraindik ere. 2017an, giza eskubideen defendatzaileek milaka atxiloketa, akusazio faltsu, eta lege-prozesu luze, garesti eta bidegabe pairatu zituzten, eta zenbait kasutan, espetxe-zigor luzeetara kondenatu zituzten. Pertsona horietako askok duten babesgabetasun-egoerak larriki eragozten du haien lan zilegi eta eraldatzailea.

CEAR-Euskadik 20 urtetik gora darama errefuxiatuen, migratzaileen eta aberrigabeen giza eskubideak defendatzeko lanean. 2011z geroztik, gure jarduera-ildoetako bat izan da Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko ezarritako programaren koordinazioa. Programa hori Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak gidatzen du eta CEAR-Euskadik koordinatzen du. Hau da programa horren helburua: beren jatorrizko herrialdean egindako jarduerengatik bizia edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileei babesa ematea, Euskadin sei hilabeteko egonaldia egiteko hartuta.

Programak martxan daraman ibilbidean ikasi dugunaren ildotik, ikusi dugu sakon aztertu behar ditugula, beste euskal gizarte-erakunde batzuekin batera, giza eskubideen defendatzaile horiek eta haien erakunde eta kolektiboek dituzten babes-premiak, aurre egin beharreko arriskuak arintzeko aukera emango duten tresna batzuk izan ditzaten. Identifikatutako premia horretatik sortu da *Defendatzaileak babesten* ekimena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesarekin. Ekimen horrek –hor sartzen da ikerketa hau ere–, euskal gizarte-eragileak sendotzen laguntzea du helburu, giza eskubideen defendatzaileen eta arriskuan dauden kolektiboen babesaren arloan, zenbait ikerketa-, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta komunikazio-estrategiaren bidez.

2. ZER ULERTZEN DUGU BABESA EMATEAZ HITZ EGITEN DENEAN?

Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoaren arabera, giza eskubideen defendatzaile dira bakarka edo beste pertsona batzuekin batera giza eskubideak sustatzen edo babesten ahalegintzen direnak. Termino zabala da, giza eskubideen urraketa oro desagerrarazteko eta giza eskubideak –banakakoak zein kolektiboak– benetan baliatzeko laguntza ematen duten pertsona edo kolektibo guztiak hartzen baititu barnean.

Nazio Batuen Errelatore Bereziaren arabera, giza eskubideen defendatzaileen kolektibo hauek dira arrisku-egoera handienari aurre egin behar diotenak:

- Erakunde feministetako emakumeak.
- LGTTBI[2] kolektiboko pertsonen eskubideak defendatzen jarduten duten pertsonak.
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak nahiz ingurumen-eskubideak defendatzen jarduten duten pertsonak; batik bat, lurra izateko eskubidea aldarrikatzen dutenak, herri indigenak eta afrikar jatorrikoen ondorengoak.
- Kolektibo gutxituen eskubideak defendatzen jarduten duten pertsonak.

1 Front Line Defenders (2017).
2 Pertsona Lesbianak, Gayak, Transexualak, Transgeneroak, Bisexualak eta Intersexualak.

NOLA ULERTZEN DUGU BABESA?

ANSUR kolektiboaren[3] arabera, babesa da giza eskubideen defendatzaileek, erakundeek eta instituzioek bizitzeko eta lan egiteko eremu seguruak sortu eta zabaltze aldera garatzen dituzten ekintzen multzoa. Osotasun fisiko, emozional eta kolektiboaren aurkako mehatxuei aurre egiteko hainbat estrategia eta ekintza hartzen ditu barnean. Beraz, gure aburuz, babesa ez da soil-soilik mehatxurik ez izatea, pertsonen, komunitateen eta kolektiboen ongizatea baizik, alderdi guztiak aintzat hartuta.

Babesean aditu diren erakundeek hiru estrategia-mota nabarmentzen dituzte:

- **Onarpen-estrategiak:** estrategia horiek arriskuak murrizten dituzte, erakundearen zereginen erasotzaile izan daitezkeenen tolerantzia lortzen baitute. Onarpena areagotzeko modu onenetako bat da erakundearekiko oniritzi orokorra lortzea (komunitatearen onespen politiko eta soziala). Hori harreman positiboak ezarriz eta erakundeari buruzko ezagutza sustatuz lor daiteke, eragile independente gisa zilegitasun-kuota handiagoak eskuratuz.

- **Babes-estrategiak:** testuinguruaren eta arriskuaren azterketan oinarrituta, segurtasuna areagotzen da segurtasun-neurriak eta prozedura operatiboak identifikatu eta martxan jarriz, hala nola jardun-protokoloak, kolektiboetako kideentzako laguntza psikosoziala, autobabes-neurriak, eta informazioaren eta komunikazioaren erabilera segurua.

- **Disuasio-estrategiak:** arriskua murrizten dute, mehatxua geldiarazten edo eragozten baitute, erasoen kostu politikoa handitzea eragiten duten ekintzen bitartez, hala nola salaketa-kanpainak egitea, presioa egiteko ahalmena duten aliantzak (herrialdean eta nazioartean) sortu edo sendotzea, eta agintariekiko interlokuzioa egitea.

Tradizioz, babesa eraso eta mehatxuen aurkako erreakziotzat ulertu da, berehalako arrisku-egoerei aurre egitekoa. Hala ere, azken urteotan, ikuspegi hori berrikusteko beharraz ohartuta, erabiltzen diren estrategien eraginkortasuna aztertuz eta egoera zehatz bakoitzaren konplexutasuna eta bereizgarritasunak kontuan hartuz, ikuspegi integralago bat erabiltzen hasi gara, lau alderdi aintzat hartzen dituena: antolaketa-alderdiak, harremanak, alderdi psikosozialak eta segurtasuna. ANSUR kolektiboak lau hankako mahai baten bidez irudikatzen du babesaren ikuspegi hori. Hanketako bat laburtzen bada, mahai osoa kolokan egongo da.



Irudia: ANSUR

- **Antolaketa-alderdiak.** Segurtasun instituzional handiagoa izateko lagungarriak diren erakundearen barne- edo funtzionamendu-elementuak dira. Esate baterako, honako hauek: barne-espazioak edukitzea, "babesteko, geure burua babesteak" duen garrantziaz sentsibilizatzeko eta prestakuntza emateko; babesaren kudeaketan erabakiak hartzea; antolakuntzaren printzipioak eta funtzionamendu-moduak; testuinguruaren, arriskuaren eta segurtasun-gorabeheren sistematizazioaren azterketak egiteko metodologiak; komunikazio-estrategia aldizka berrikustea; eta lidergo kolektiboak sustatzea.

3 ANSUR kolektiboa (2014).

- **Harremanak.** Erakundeak herrialdean nahiz nazioartean dituen sareak, aliantzak eta koordinazio-espazioak dira, bai eta haien berrikuspena eta haiek handitzeko eta mantentzeko mekanismoak ere, agintariekiko harremanak barne hartuta (eragina, helburuak, gauzatzeko modua, eta lortzen diren emaitzak).

- **Segurtasun-neurriak.** Eguneroko (edo ez hain eguneroko) zenbait praktika dira, segurtasuna areagotzen dutenak, prebenitzeko eta erreakzionatzeko jarduketa-moduetan pentsatzeko aukera ematen dutenak. Arlo honetan sartuko lirateke neurri pertsonal batzuk hartzea, informazioa behar bezala kudeatzea, egoeren araberako jarduketa-protokoloak, larrialdi-planak, bulegoetako segurtasunari buruz adostutako neurriak, eta bulegoetara egiten diren bisitei buruz adostutakoak.

- **Alderdi psikosozialak.** Erakundeko kideen eta erakundearekin lan egiten duten pertsona guztien ongizatea bermatzeko egiten den guztia sartzen da. Esate baterako, indarkeriaren eraginei aurre egiteko moduak, biktimekiko eta biztanleria zaurgarriarekiko harremanak, emozioak adierazteko barne-mekanismoak, beldurraren kudeaketa, testuingurutik eta estresetik eratorritako higaduraren prebentzioa, larrialdi baten osteko prebentzio- eta erreakzio-laguntzekin lotutako estrategiak.

3. IKERKETAREN HELBURUA

Defendatzaileak babesten ekimenaren helburua euskal gizarte-eragileak sendotzen laguntzea da, giza eskubideen defendatzaileen babesaren arloan. Horretarako, beharrezkoa zen jakitea zein diren eragile horiekin lankidetzan aritzen diren erakunde eta kolektiboen errealitateak. Beraz, bi elementu nagusi hauei buruzko informazioa bildu da:

- Giza eskubideen defendatzaileen **babes-premia esanguratsuak.** Behar horien barruan, intersekzionalitatea aintzat hartuta, zehazki kontuan hartu dira emakumeak eta LGTTBI[4] kolektiboko kideak izateak eragindako babes-premiak.

- Uneren batean erabilgarriak izan daitezkeen **babes-mekanismoak**, arriskuen eta haiei aurre egiteko estrategien aniztasuna eta dinamismoa kontuan hartuta.

Elementu horien inguruan jasotako informazioa erabiliz, diagnostiko hau egin da, helburu honekin: euskal eragileekin kolaboratzen duten erakundeen eta kolektiboen arrisku-egoerekin lotutako arazoei buruzko ikuspegia ematea. Tresna erabilgarria izateko helburua du, arrisku-egoeran dauden erakunde, komunitate eta kolektiboekin dituzten harremanetan babesaren ikuspegia txertatu nahi duten eragileentzat. Helburua sailkapen argi bat sortzea da, dinamikoa izango bada ere, kasu bakoitzeko babes integralerako premiei buruz geure buruari galdetzeko; hau da, giza eskubideen defendatzaileen babesean eta babesaren alde lan egiten duten pertsonek, kolektiboek eta erakundeek erabili ahal izateko.

4. IKUSPEGIA ETA METODOLOGIA

Metodologiaren diseinua eta landa-lanerako tresnak prestatzeko, Brigadas Internacionales de Paz (PBI) erakundearen eta ANSUR kolektiboaren laguntza izan da. Erakunde horiek aitortutako ibilbidea dute giza eskubideen defendatzaileen laguntzan. Halaber, ikuspegi feminista prozesu osoko konstantea izatearen garrantziaz ohartuta,

4 Lesbianak, Gayak, Bisexualak, Transexualak, Transgeneroak eta Intersexualak

Silvia Piris ikertzaile feministaren babesa izan da, metodologiari buruz aholkatzeko eta Bilbon egindako foku-taldeak bideratzeko. Ikerketan, elementu nagusi hauek hartu dira kontuan:

- Emakumeak eta LGTTBI kolektiboko kideak subjektu politikotzat ulertzeko garrantzia, kontzientziazioa eta jabekuntza prozesuak –banakakoak zein kolektiboak– erdigunean jarrita.
- Aniztasuna edo intersekzionalitatea, funtsezko elementuak baitira ulertzeko nola lotzen diren beste aldagai batzuk generoaren aldagaiarekin.
- Mugimendu feministaren zentraltasuna, eraldaketarako erreferente teoriko-politiko gisa.
- Landa-komunitate batekoa (nekazariak, indigenak, afrikar jatorrikoen ondorengoak) izatearekin edo ez izatearekin lotutako aniztasunari arreta ematea.

ZER GALDETU DIOGU GURE BURUARI?

Babes integralerako lehen aipatutako lau alderdiak kontuan hartuta, azterketarako kategoriak zehaztu ziren, eta kategoria horietatik abiatuta, landa-lanerako tresnak diseinatu ziren.

Hauek izan ziren erabilitako azterketa-kategoriak:

ANTOLAKETA

Erakunde barnekoaren babesa eta segurtasuna errazten edo zailtzen duten elementuak:

- Arrisku-kontzientzia
- Arriskuak desberdinak izatea, karguaren eta erakundean/komunitatean izandako lidergomotaren arabera
- Erabaki-hartzearen dinamika
- Barne-funtzionamendurako moduak
- Segurtasun-gorabeheren erregistroa eta azterketa
- Azterketa: testuingurua, arriskua, babesa
- Komunikazio-estrategiak
- Babesari buruzko prestakuntza
- Ekonomia-baliabideak, jasangarritasun ekonomikoa
- Segurtasunaren kudeaketari buruzko nahiak (hobekuntzak)

ALDERDI PSIKOSOZIALA

Kolektibo/komunitate bateko kideen eta pertsona horiek lan egiten duten jendearen ongizatearekin lotutako guztia hartzen du bere baitan.

Elementu pertsonalak, familiarrak, sozialak eta espiritualak hartzen ditu bere baitan.

- Bizirik irauten dutenekiko harremana
- Ondorioen kudeaketa
- Kudeaketa diferentziala
- Emozioak adierazteko eta erregulatzeko barne-mekanismoak
- Aurre egiteko estrategiak
- Elkarri laguntza emateko estrategiak
- Esperientzia partekatzea
- Laguntza-sareak
- Borrokaren, lanaren zentzua
- Denbora librea
- Ospakizun- eta oroimen-uneak
- Jatorri desberdinetako pertsonekiko komunikazioa

SEGURTASUN-NEURRIAK

Eguneroko (edo ez hain eguneroko) zenbait praktika dira, prebenitzeko eta erreakzionatzeko jarduketa-moduetan pentsatzeko aukera ematen dutenak

- Arrisku-kontzientzia
- Neurri pertsonalak
- Neurri diferentzialak
- Informazioaren kudeaketa
- Jarduketa-protokoloak
- Segurtasuna bulegoetan

HARREMANAK

Erakundearen/komunitatearen harreman-ehuna:

- Kolektiboak tokian-tokian, eskualdean eta nazioartean dituen sareak eta aliantzak.
- Harremana nazioarteko babes-erakundeekin
- Harremana agintariekin

NORI GALDETU DIOGU ETA NOLA EGIN DUGU?

Lehenik eta behin, giza eskubideen defendatzaileen babesari buruzko bibliografia berrikusi dugu, bai eta defendatzaileen arrisku-egoerari buruzko txostenak ere, gobernuz kanpoko erakundeenak zein giza eskubideei buruzko nazioarteko sistemarenak. Literatura horren berrikuspenak ikerketa-esparru teorikoa prestatzeko balio du, eta hortik abiatuta egin da ikerketarako metodologiaren diseinua. Bibliografiaren berrikuspenaren ondoren, hiru foku-talde egin ziren, eta hamabi elkarrizketa giza eskubideen defendatzaileei, erakundeei eta babesean adituak diren pertsonei, jakiteko eta lehen eskutik biltzeko pertsona horiek beren esperientzia pertsonal eta kolektiboaren arabera identifikatu dituzten premiak.

Foku-taldeak

Foku-taldeak informazioa biltzeko tresna kualitatiboak dira, talde homogeneoei egindako elkarrizketa kolektiboetan oinarritzen direnak. Elkarrizketa horietan, eztabaidaren "fokua" gai jakin batera bideratzen da; kasu honetan, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen, erakundeen eta kolektiboen babes-premiak, arriskuak eta babes-mekanismoak.

Hiru foku-talde egin ziren, bi EAEn eta bestea Kolonbian. Talde horien helburua hausnarketa kolektiboa egitea zen, bai eta esperientzian oinarritutako informazioa biltzea ere, honako hauei buruz:

- Euskal gizarte-erakundeekin lankidetzan aritzen diren pertsona eta kolektiboek aurre egin beharreko mehatxuak eta arriskuak, kontuan hartuta zer arrisku espezifiko dituzten sexuaren, genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, adinaren, bizi diren lekuaren edo erakundeetan duten postuaren arabera.
- Mehatxu-/indarkeria-eragileak
- Ekintzaile eta defendatzaile horiekin lanean izandako esperientzian identifikatutako babes-premiak: alor pertsonalean, kolektiboan, materialean, psikosozialean, segurtasun-neurrietan, etab.
- Zer zaintza- eta babes-estrategia ari diren jartzen martxan, bai defendatzaileak eta haien erakundeak, bai euskal gizarte-kolektiboak eta -mugimenduak.

EAEko bi foku-taldeetan, erakunde hauetako kideek hartu zuten parte: Alboan, Aldarte, Bizilur, Euskadiko GKEen Koordinakundea, Emigradxs sin fronteras, Feministalde, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabe, Mundubat eta Paz con Dignidad.

Hirugarren foku-taldea Kolonbian egin zen, eta azken urteotan Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko EAEko Programara atxikitako zenbait pertsonak parte hartu zuten: Deyanira Soscué, Doris Rivera, Eduardo Castro, Luz Marina Palacios eta Yolima Bedoya.

Elkarrizketa sakonak

Azterketarako lau alderdiak eta kategoriak abiapuntu hartuta, elkarrizketa sakonerako diseinua egin zen. Honako hauei egin zitzaien elkarrizketa:

Giza eskubideen defendatzaileak:

- Fabián Torres (Kolonbia): *Congreso de los Pueblos.*
- Jorge López (Guatemala): *Organización de Apoyo a una Sexualidad Integral frente al Sida (OASIS).*
- Lorena Cabnal (Guatemala): *Red de sanadoras ancestrales del feminismo comunitario.*
- Orfe Castillo (Mexiko): *Asociadas por lo Justo (JASS) eta Iniciativa Mesoamérica de Defensoras.*

Giza eskubideen defendatzaileen babesaren arloko adituak:

- Esther Domenech eta Luis Pérez: *ANSUR kolektiboa.*
- Kerstin Reemtsma: *PBI Guatemala.*
- Luis Enrique Eguren: *Protection International.*
- Marusia López (Mexiko): *JASS (Asociadas por lo Justo) eta Iniciativa Mesoamérica de Defensoras.*
- Sinead Nolan: *Front Line Defenders.*
- Vincent Vallies: *aholkulari independentea.*

Erakundeak:

- Maite Garmendia: *Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.*
- Monika Hernando: *Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.*

Landa-lanean bildutako informazioa ikerketa-prozesuaren lehen urratsetan zehaztutako alderdiak eta kategoriak kontuan hartuta aztertu da. 5. atalean, identifikatutako premien deskribapena dago. 6. atalean, berriz, premia horien azterketa azaldu dugu.

5. IDENTIFIKATUTAKO BABES-PREMIAK

5.1. TESTUINGURU MEHATXATZAILEA

5.1.1. Aurre egin beharreko mehatxuak eta indarkeria

Elkarrizketa gehienetan eta foku-taldeetan, azpimarratu da **giro mehatxatzaile orokortua eta iraunkorra** dagoela, eta, horrenbestez, giza eskubideen defendatzaileek, komunitateek eta erakundeek mota guztietako mehatxuei eta indarkeriari aurre egin behar dizkiete: kriminalizazioa, judizializazioa, erailketak, jazarpena, tortura, alde egin beharra…

"Zoritxarrez, erasoak jasaten ditugu beti, egunero, denbora guztian, etengabeko kontua da".

"Gatazka armatu irekiko edo indarkeria- eta errepresio-maila handiko testuinguruetan dauden pertsonak edo erakundeak direnez, aurre egin behar dizkiete, modu batean edo bestean, 'arrisku formal guztiei': jazarpena, estigmatizazioa, kriminalizazioa, tortura...".

"Arrisku hauek dituzte, batez ere: erailketak, erailketa-saiakerak, heriotza-mehatxuak, atxilotze arbitrarioak, judizializazioa, difamazioa, desagertze behartuak, kontu-arpilaketa, jazarpena kalean, larderiak, bulegoen bortxaketa".

"Indarkeria larriagotu egin da, oro har, gizarte osoan, emakumeen aurkako indarkeria barne".

"Arrisku handi bat dago gaur egungo munduko leku guztietan. Gizarte zibilean eskubideak eskatzeko edo, oro har, protestatzeko espazioak ixten ari dira, hain zuzen".

"Herrialdean dagoen indarkeria politiko orokortuko testuinguruagatik, eta orain are gehiago, arrisku izugarri handia dago, bakerako elkarrizketa-prozesua egon arren".

Noski, mehatxuak eta dagokion arriskua –ahuleziekin eta gaitasunekin lotua– bizilekuaren –landa edo hiria– eta testuinguru orokorraren –adibidez, gatazka armatuko testuingurua den ala ez– araberakoak dira.

"Bizilekuari erreparatuz gero, lurralde indigenetako defendatzaileak dira erailketa eta mehatxu gehien jasaten dituztenak. Hain zuzen ere, Brasilen, indigenen erailketa-kopurua oso handia da".

Mehatxu eta indarkeria berezitua dagoela nabarmendu da, emakumeen eta LGTTBI kolektiboko pertsonen aurka, batez ere.

"Emakumeek gehiago jasan behar dituzte sexu-torturak eta bortxaketak, eta, gainera, haien aurkako difamazio-kanpainak eta izena zikintzekoak ez dira gizonen aurka egiten direnak bezalakoak".

"LGTBI kolektiboari dagokionez, adibidez, trans kolektiboko pertsonak erail egiten dituzte gehienbat, beren genero-identitatea dela eta. LGTBI kolektiboko kideen eskubideen alde jarduten duten trans kolektiboko emakumeen zenbait erailketa ditugu dokumentatuta. Eta jasaten duten larderia askoz handiagoa da".

Mehatxuak eta indarkeria askotarikoak eta hainbat arrazoirengatik izan daitezkeen arren, badirudi helburu orokorra pertsona, kolektibo edo komunitate horrek eskubideak eskatzeko **lana geldiaraztea** dela, bai eta **gizarte-ehuna apurtzea** ere. Alde horretatik, hau azpimarratu da: banakako erasoak izanda ere, azken helburua kolektiboari kalte egitea izan ohi da.

"Berriz aipatu nahi nuke zer helburu duen oso ondo zehaztutako eta diseinatutako sistema batek, antolaketa apurtzeko. Pertsonaren aurkakoa da, haren aurka egiten dute, kalte egiten diote, hautsi egiten dute, hil, zauritu. Pertsona hori kolektibo baten kide da. Kolektibo, talde horren aurka ere egiten dute, eraso egiten diote, hatzez seinalatu, hari hauskor horretan egonarazten dute, 'zuri ere gerta dakizuke' airean zabalduz. Beldurrarazi nahi dute, geldiarazi".

"Banakakoen eta kolektiboen aurkako mehatxu horiek erakundeen biziraupena bera arriskuan jartzen dute".

"Komunitateetan banaketa sortzeko interesa duten sektoreek eragiten dute, eta erresistentzia asko ahultzen dute. Landako defendatzaileei indarra kendu edo ahultzen diete, babes komunitario osoa duten arren. Baina komunitateak zatitzea lortzen dutenean, orduan gauzak asko konplikatzen dira".

Arriskutzat identifikatu dira **defendatzaileen osotasun fisikoaren eta bizitzaren aurkako erasoak** (desagertze behartua, bahiketa, jazarpen fisikoa, jazarpena, erailketa, lekualdatze behartua, zuzentzeko bortxaketak eta sexu-indarkeria), eta **kriminalizazioa** da indarkeria-mota azpimarragarrienetako bat (judizializazioa –gizarte-protesta barne-, espetxe-zigorra, tortura, zigor-zuzenbidearen gehiegizko erabilera –esaterako, kalte-galerengatik dirutza eskatzeko demandak, usurpaziogatiko salaketak, ingurumen-delituengatiko salaketak...-). Halaber, **sare sozialen** bidezko mehatxuak eta **familien aurkako mehatxuak** aipatu dira, emakume defendatzaileen aurkakoak, batez ere.

Kriminalizazioaren fenomenoa areagotu dela azpimarratu da. Erakunde asko ez daude prestatuta estrategia horren aurka egiteko; beraz, zaila suertatzen zaie kriminalizazioari aurre egitea. Zenbait kriminalizazio-mota daude, hala nola zuzeneko mehatxu estigmatizatzaileak, estigmatizazio publikoa hedabideetan, eta pertsona edo kolektiboen aurkako prozesu judizialak.

"Erakundea kriminalizatzen duten panfletoak atera dira, talde terrorista, erreboltaria, balitz bezala. Etiketa hori jartzean, helburu militar bihurtzen zaituzte, jendea arriskupean jartzen da".

"Aipamen zuzenak hedabideetan, gizarte-erakundeak seinalatzeko eta kriminalizatzeko. Hori egitean erakundeak jopuntuan jartzen dituzte: horiek dira terroristak, garapenaren etsaiak, eraso egin behar zaie".

"Agintari-klasetik ere egiten dituzte horrelako erasoak; ahozkoak dira, baina indarkeria hori legitimatu nahi dute".

"Baina horiekin gertatzen ari dena kriminalizazioa da, eta hori nolabait berria da. Akusazio nahiko barregarriekin inplikatzeko estrategia dago. Baina nolanahi ere, epaiketa abiatzen da, eta epaileek ere presio bera dutenez, ba, epaile zuzenak difamatu eta beldurrarazten dituzte, jada ezin da segurutzat hartu epaileak 'hau barregarria da, auzia itxi egingo dut' esatera ausartuko denik. Akusazioak bideratzen dituztenak militarren gertuko sektoreak baitira, edo militar ohiak".

Emakumezko defendatzaileen aurkako indarkeria nabarmendu da, eta horrek biktimizazio bikoitza dakar: giza eskubideen defendatzaile izateagatik, batetik, eta emakume izateagatik, bestetik. Indarkeria horrekin batera, gertuko ingurunearen babes eta balorazio falta izaten da, eta horrek emakume horien kalteberatasuna areagotu dezake. Emakumeen aurkako erasoak areagotu dira, eta hori lotuta dago emakumeen lidergoa mugimendu guztietan gero eta agerikoagoa izatearekin.

"Bat, lurralde horietan bertan dagoen matxismoa, herentzia patriarkal hori, esanez erakundeetan ez dietela kasurik egingo, emakumeak direlako, edo familiara hedatzen diren mehatxuak (zuen seme-alabak hilko ditugu). Bortxaketa-kasuak, emakume izateagatiko diskriminazioa, gizarte-arbuiatzea eta zuzeneko indarkeria. Aurten emakumezko gehiago erail egingo dituzte gizonezko baino, eta horrek ere adi-adi egonarazi behar gaitu emakumeei gertatzen ari zaienagatik".

"Lurraldeetan ikusten ari gara emakumeen aurka erabiltzen den errepresio-tresna bortitz eta misogino bat sexu-indarkeria dela. Eta horrek desberdindu egiten ditu emakumeen gorputzak gizonezko defendatzaileengandik".

"Sexu-indarkeriazko ekintzak aipatzen dituzten mehatxuak, emakume defendatzaileen izena zikintzeko kanpainak, bizitza pribatua edo sexu-moralitatea baliatzen dutenak… Estereotipo horiek guztiak baliatzen dituzte emakumeen lana zalantzan jartzeko, lan horri zilegitasuna kentzeko. Zilegitasun-kentze horrek, emakume defendatzaileen kasuan, eragin partikularra du, ez baitu lan horretan soilik eragiten, eragin nahiko larriak izaten baititu emakume horien familia-ingurunean. Izan ere, emakumeok familiaren zaintzan eta mantenuan dugun eginkizuna dela eta, zilegitasun-kentze horrek eragin handiagoa du gizonezko defendatzaileentzat baino".

"Emakume defendatzaileen aurkako sexu-indarkeria izango da orain emakume indigenak beldurrarazteko, izutzeko, ikaratzeko arma".

"Alaben aurkako mehatxuak beste kontu bat da. Emakume asko geldiarazi dituzte 'segi mugitzen, segi gauzak egiten, horrela jarraitzen baduzu, zure alabak bortxatuko ditugu' esan dietelako".

"Lurralde-femizidioa esaten diogu, eragin zehatza baitu indigenen arbasoen lurraldeetan".

"Emakumeen aurkako indarkeria erabiltzea eta erakustea gizarte-kontroleko mekanismo bat da".

Halaber, azpimarratu da eraso horiek **kamuflatu** egiten direla, delinkuentzia arrunta edo indarkeria matxista balira bezala, erasoen arrazoi politikoak ezkutatzen saiatzeko.

"Emakumea bazara giro matxista batean, emakume izateagatik egingo dizute eraso, disimulatuz, eta gertatutakoa matxismo-kontu bat baino ez dela izan esango dute, eta jazarpena ez dela izan giza eskubideen defendatzaile izateagatik".

"Arrazoi politikoak arazo pertsonal edo delinkuentzia arrunt gisa kamuflatzen saiatzeko ohitura dago".

Ondorioak

Elkarrizketei, foku-taldeei eta bibliografiaren ikuskapenari esker sistematizatutako informazioa dela eta, zenbait mehatxu- eta indarkeria-mota identifika ditzakegu. Batzuk ez dira besteak baino garrantzitsuagoak edo larriagoak. Hori erakundeen eta komunitateen testuinguruaren araberakoa izango da, lurraldean dauden interesekiko aurkakotasun-mailaren araberakoa, gaitasunen eta ahulezien araberakoa... Den-denak hartu behar dira kontuan.

Giza eskubideen defendatzaileen (pertsonak eta erakundeak) **irudiarekin lotutako mehatxuak eta indarkeriak:** defendatzaileen interesekin bat ez datozen botere politiko edo ekonomikoek, estatu-erakundeek, hedabideek eta komunitateek egindako difamazio-kanpainak. Oro har, defendatzaileak gerrillari-taldeekin, talde terroristekin edo ustelkeria-ekintzekin lotzea izan ohi da kanpaina horien helburua. Gerta liteke zilegitasuna kentzeko kanpaina zehatzak egitea emakumeen eta LGBTTI kolektiboko erakundeen aurka, familiaren ikuspegi patriarkalarentzako

arriskua direla adierazita. Afrikar jatorrikoen ondorengoen komunitateak eta herri indigenak garapenerako oztopoak direla esaten da; beraz, herritar gehienen etsaiak.

Egoera horietan, giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde, komunitate eta pertsonek laguntzak behar izan ditzakete, beren ingurunean beren lana legitimatzeko estrategiak garatzeko. Alde horretatik, garrantzitsuak izan daitezke nazioartean duten babesa ikusarazteko jarduerak. Esate baterako:

- *Artikuluak edo elkarrizketak tokiko edo nazioarteko prentsan:* Hor, nazioarteko organismoek edo erakunde publikoek nabarmendu dezakete zein garrantzitsuak diren giza eskubideen defentsa, mehatxupean dagoen kolektiboaren lana, eta zein eragin positiboa duten kolektibo horren jarduerek komunitatean eta herrialdean. Garrantzitsua da ulertzea nazioarteko organismo edo antolakuntzek, agian, oihartzun handiagoa izan dezaketela herrialde jakin batzuetako hedabideetan, herrialde horietako bertako erakundeek baino.
- *Sari-banaketak:* Saria ematen duenaren babesa erakusten dute, nazioartekoa, eta aukera ematen dute komunikazio publikoko ekintzak egiteko, lan eta babes hori ikusarazteko.
- *Tokian tokiko bisitak:* hedabideen parte-hartzearekin, giza eskubideen defendatzaileek eta haien erakunde eta komunitateek egiten duten lana ezagutu eta zabaldu ahal izateko.

Lege bidezko mehatxu eta indarkeriak, eta amarru judizialak. Lege bidezko erasoak giza eskubideen aldeko defentsa-lana eragozteko helburua duten legeak sortuz egin daitezke (burokrazia areagotzea, lortzeko zailak edo ezinezkoak diren erregistro ofizialak eskatzea; nazioarteko finantzaketa eskuratzeko mugak jartzea…). Halaber, amarru judizialak eta atxiloketa arbitrarioak egon daitezke, akusazio faltsuak baliatuta: terrorismoa, egitura kriminaletako kide izatea edo ustelkeria, besteak beste. Horrelako mehatxuetan sar ditzakegu bulegoen bortxaketak (legezkoak eta legez kanpokoak), erakundeen isilpeko informazioa lapurtu eta/edo suntsitzeko helburuz.

Mehatxu horiei aurre egiteko, giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeek, komunitateek eta pertsonek zenbait laguntza behar ditzakete. Honako hauek nabarmenduko ditugu:

- *Bulegoen eta informazioaren babesa:* segurtasun informatikoari buruzko prestakuntza, segurtasun-neurri fisikoak (adibidez, segurtasun-kamerak), bulegoetan informazio garrantzitsuaren kopiak gordetzea, galera berreskuraezinak eragozteko.
- *Laguntza juridikoa eta behaketa epaiketetan:* abokatu-taldeak izatea; eragiteko ekintzak, entzunaldietan nazioarteko laguntza izateko (adibidez, kidego diplomatikoaren laguntza) eta estrategia juridikoak ezartzeko (adibidez, amicus curiae egitea), espetxeratzeak edo judizializazioak gertatuz gero. Espetxeratzeak gertatuz gero, beharrezkoa da presioari eustea, nazioarteko erakundeak eta erakunde publikoak pertsonaren espetxe-egoeraren gainean daudela ikusaraziz, gutxieneko legezkotasun-, segurtasun- eta duintasun-baldintzak bete daitezen. Garrantzitsua da eragiteko ekintzak egitea, politikan garrantzia duten pertsonek espetxera bisitak egin ditzaten. Bestalde, erakundearen ahalmena kaltetuta suerta daiteke, eta malgutasuna izan behar da proiektuak garatzean. Familia espetxeratutako pertsonaren baliabideekiko mendekotasun ekonomikoa badu, familiari unean-uneko laguntzak ematea kontuan har daiteke. Eta, jakina, laguntza psikosoziala kolektiboko pertsonentzat, zuzenean eragindako pertsonarentzat eta haren familiarentzat, hala behar izanez gero.
- *Kolektiboaren lana legitimatzeko ekintzak* (aurreko atalean aipatu ditugu) ere garrantzitsuak dira judizializazio- eta espetxeratze-kasuetan.

Eraso fisiko eta psikosozialak. Defendatzaileek honako hauek jasan ditzakete: atzetik segitzea, eraso fisikoak, erailketak, tortura, sexu-indarkeria, heriotza-mehatxuak, desagertze behartuak, jazarpena kalean, beldurrarazteak, senitartekoen aurkako erasoak, beste pertsona batzuk erakunde, kolektibo eta komunitateetan infiltratzea (ahuleziak identifikatzeko eta gizarte-ehuna hausteko gatazkak sortzeko).

Horrelako kasuetan, laguntza hauek behar ditzakete:

- *Salaketa publikoa:* erreakzio bizkorra, salaketa publikoa eginez; salaketaren berri hedatzeko babesa; eta mobilizazioak herrialdeko eta nazioarteko babes-sareetan, bermeak eskatzeko.
- *Lurraldetik aldi batez irtetea:* laguntza emozional, politiko eta finantzarioa, lurraldetik, eskualdetik edo herrialdetik irten behar izanez gero.
- *Segurtasun fisikoa eta komunikazioen segurtasuna:* bulegoak eta komunikazio-kanalak segurtasunaren aldetik (adibidez, segurtasun informatikoa) egokitzeko laguntzak, eta garraio seguruak eskura izatea, besteak beste.
- *Laguntza psikosoziala:* banakakoa, kolektiboa eta komunitarioa, eraginak kudeatzeko, babes-faktoreak identifikatzeko eta gizarte-ehuna sendotzeko.

Halaber, azpimarratu da babes ekonomikoa garrantzitsua dela, aipatutako ekintzetako asko egin ahal izateko. Arrisku jarraituko testuinguruetan bizitzeak eta lan egiteak eragin handia du defendatzaileen eta haien kolektibo eta komunitateen biziraupen-aukeretan. Bestalde, babes-neurrietako batzuetarako, baliabide ekonomikoak behar dira zenbait gastutarako; esate baterako, materialak ordaintzeko, abokatuak kontratatzeko eta laguntza psikosozialerako.

Mehatxu- eta indarkeria-mota bakoitzerako arrisku-maila erakundearen edo pertsonen jardun-testuinguruaren eta haien gaitasunen eta ahulezien araberakoa denez, faktore horien guztien azterketa desberdindua egin eta kontuan hartu beharko da. Ahulezien eta gaitasunen azterketa desberdina izango da landa- edo hiri-eremuko defendatzaileentzat (adibidez, defendatzailea landa-eremuan bizi bada eta han lan egiten badu, agian bere inguruneari eta bizilagunei buruzko ezagutza-maila handiagoa izango du, eta hirian bizi den pertsonak, berriz, eskuragarriago izango ditu hedabideak). Oro har, emakumeek eta LGTTBI kolektiboko pertsonek mehatxuak jasan ditzakete beren genero-ezaugarriengatik. Egoera hori dela eta, ikuspegi zehatzagoa eta zabalagoa izan beharko dugu mehatxu horiek aztertzean. Hain zuzen ere, emakume defendatzaile batek mehatxu desberdinak izan ditzake, hala nola sexu-bortxaketaren erabilera 'suntsiketa politikorako' arma gisa, eta hori ondorio jakin batzuk dituen mehatxua da.

Ez daude premia homogenoak, azterketaren araberakoak izango baitira. Azterketa hori, berriz, lankidetzan egin behar da eragindako pertsona eta kolektiboekin.

5.1.2. Nork eta zergatik mehatxatzen du

Nork egiten du mehatxu, nork egiten du eraso

Pertsona defendatzaileen aurkako zenbait **eraso-egile** aipatu badira ere (segurtasun-indarrak, enpresak, segurtasun-talde pribatuak, talde paramilitarrak, delinkuentzia arrunta, krimen antolatua), kasu gehienetan, azpimarratu da **erantzule nagusiak estatuetako segurtasun-indar eta –gorputzak** izan zirela, dela zuzenean, dela indar paramilitarrekin edo segurtasun-talde pribatuekin ados jarrita. Emakumeen eta LGTTBI kolektiboko pertsonen kasuan, aipatu da, halaber, gizarteak berak eraso egiten diela defendatzaileei, kultura matxista eta LGTTBI kolektiboaren aurkako fobia tarteko.

"Noski, gure azterketen arabera, Estatua eta haren erakundeak ageri dira eraso-egile nagusitzat, indar publikoak eta tokiko aginteak batez ere, baina, askotan, estatuz kanpoko eragileen konplizitatearekin jarduten dute, edo haiei mesede egiteko. Enpresak edo krimen antolatuko taldeak izaten dira, batez ere".

"Emakume defendatzaileek Estatua eta estatuaren indarrak aipatzen dituzte haien aurkako erasoen egile nagusitzat".

"Batetik, betikoak daude: Estatuaren egitura formala (armada, adibidez), egitura paraestatala (paramilitarrak). Bestetik, uste dugu orain oso indar handia dutela enpresa handien, multinazional handien, lurralde batzuetan eta besteetan ezarriko den botere ekonomikoa handiaren parean dauden segurtasun-taldeak".

"Ez da ahaztu behar paramilitarismoak lotura duela estatuen une jakin bateko estrategiarekin. Paramilitarismoaren lotura estatuarekin. Armadari, poliziari lan zikina egiten zioten. Armada eta polizia ziren bigarren eraso-egile nagusiak".

"Erasoen erantzuleak, askotan, eraso-motaren araberakoak izaten dira. Noski, atxiloketa arbitrarioak, auzipetzeak edo poliziak edo armadak eragindako beldurrarazteak aipatzen baditugu, nahiko agerikoa da erantzulea estatua dela. Beste askotan, jakina izaten da defendatzaileen erailketen erantzuleak enpresak direla, baina era berean frogatu daiteke estatua ere horren atzean dagoela, konplize dela. Talde armatuak ere izan daitezke erasoen erantzuleak, baina horrelakoetan ere, loturak izaten dituzte gobernuarekin. Halaxe gertatzen da, adibidez, Kongoko Errepublika Demokratikoan".

"Emakume defendatzaileen edo LGTTBI kolektiboko pertsonen eskubideak defendatzen dituztenen egoeraz hitz egitean, esan behar da gizartea bera ere badela erasoen erantzule, errespetu gutxiko ikuspegia baitu, kalean erasoak gertatzen direnean, batez ere".

Krimen antolatuko egiturek egindako mehatxu eta erasoak konplexuak direla aipatu da. Izan ere:

"(…) heldulekuak dituzte leku guztietan, erakundeetan, auzoan, tortilla-dendetan".

Halaber, **talde armatuen (paramilitarrak kasu) lurralde-presentzia** azpimarratu da. Talde horien presentziak komunitateen arriskua areagotzen du.

"Arrisku nahiko handia dago, lurraldean talde armatuen, paramilitarren presentzia dagoelako eta talde horiek gero eta handiagoak egin direlako; haien presentzia areagotu egin da eta talde paramilitarren mehatxua handia da".

Halaber, azpimarratu da erasoak, sarritan, **segurtasun pribatuko agenteek eta enpresek** egiten dituztela.

"Printzipioz, zuzeneko erasoetako asko segurtasun pribatuko agenteek egiten dituzte, enpresek edo finka-jabeek kontratatuta".

Lehen aipatu dugunez, emakumezko defendatzaileen eta LGTBI kolektiboko pertsonen aurkako erasoen protagonista gizartea bera izan ohi da, kultura **heteropatriarkalaren** eragina dela eta.

"Sexu-dibertsitatea onartzen ez duen gizartea da".

"Gizarte honetan homofobia, lesbofobia eta transfobia handia dago. Uste dut egoera horregatik garela ahulak, emakumeei matxismoarekin gertatzen zaien bezala".

"Hedabideetan dagoen kulturan, emakumeen aurkako indarkeria birlegitimatu da, musikaren bidez, armadaren eta narkotrafikoaren indarkeriaren gorespenaren bitartez. Eredu horiek genero-estereotipoak izugarri indartzen dituzte".

"Beti berdina delako, gizarte matxista batean, ez baitut ikusi horrelakorik gabeko herrialderik. Kausaren alde kosta ahala kosta egiten duen gizonezkoa heroia da, eta kausaren alde kosta ahala kosta egiten duen emakumeak, berriz, bere familia arriskuan jarri du, eta hutsaren hurrengoa baino ez da".

Zergatik egiten dute mehatxu, zergatik egiten dute eraso

Mehatxuen eta erasoen arrazoiei dagokienez, aipatu den arrazoi nagusietako bat lurraldeagatiko lehia da, enpresa multinazionalek dituzten interes ekonomikoengatik eta garapenari buruzko bi ikuspegi kontrajarriengatik (komunitateen ikuspegia, batetik, eta nagusi den eredu neoliberalaren ikuspegia, bestetik).

"Lurraldean lehia-dinamika hori ere badago, multinazionalekin, proiektu agroindustrialekin, inposatzen ari diren ga-

rapen-eredu osoarekin. Jendea hor salatzen, egoera ikusarazten egoteagatik, besterik gabe, jada badago arriskua".

"Lurrak aldarrikatzeko eskaerak egiten edota estatu-erakundeari salaketak jartzen ari den jendea mehatxuak jasotzen ari da".

"Lurraldearen defentsaren auzia, lurraldea defendatzen duten komunitate indigenen auzia, hori ere areagotu egin da azken aldian. Zenbait talde armaturen artean lurraldeagatiko lehia egoteak egoitza-eremua errepresio-estrategietako elementu bihurtzen du, nahita baliatzen den elementua. Orain, talde armatuen arteko gatazka armatu irekia ez dagoen lekuetan, egoitza-eremua arrisku erantsi bihurtu da, extraktibismoagatik, multinazionalek lurraldearen kontrolagatiko duten lehiagatik".

"Lurrarengatiko eta lurraldeagatiko borrokaren testuinguruan, edo inbertsio-proiektuen aurkako borrokan, estrategiak oso zabarrak dira, eraso zuzenak egiten baitira, bai eta heriotza-mehatxuak aurpegira ere. Benetan bortitza da. Baina badaude estrategia konplexuagoak ere, hala nola kriminalizazioa. Gauza asko egiten dira berez proiektuengatik".

"Lurraldearen auzia da, herrien eta komunitateen autonomiaren defentsarekin lotuta dagoena".

Halaber, identifikatutako beste kausetako bat da **salatze-lana eta zigorgabetasunaren aurkako borroka.**

"Giza eskubideen urraketak salatzeagatiko mehatxuak".

"Arrisku hori lotuta dago estatuak egindako giza eskubideen urraketak salatzeko jarduerarekin zein partikularrek gay, lesbiana, bisexual edo trans kolektibokoen aurka egindako gorroto-krimenak salatzearekin. (…) zigorgabetasuna hain handia denez, azkenean, bere eskubideak eskatzen dituen ororen aurkako jazarpena dago, eskatzen diren eskubideak edozein izanda ere. Salatzean, arriskua hartzen dugu, sare kriminal horien begi bistan jartzen baikara".

"Hiriburuan, zigorgabetasunaren aurkako borrokan ari diren erakundeak daude arriskuan, batez ere. Justizia trantsizionalagatik martxan dauden epaiketa handien egoera zehatzarengatik, bai eta gobernuaren ezegonkortasun-egoeragatik ere, epaiketa horietan akusatuak direnak sektore militarretatik oso gertu baitaude. Hor arriskuak oso handiak dira".

"Eta egiaren auzia, zigorgabetasunaren aurkako borroka eta horrekin lotutako gaiak".

Zenbait herrialdetan arazo koiunturalagoak egon daitezkeela ahaztu gabe; esate baterako, Kolonbian, **bake-prozesuaren alde** egin duten pertsonek edo erakundeek jasotako mehatxuak.

"Bakearen eraikuntzan parte hartzen ari direnentzat, arriskua etengabea da".

Mehatxu eta eraso horiek guztiak zigorgabetasun orokorreko testuinguruan gertatzen dira, eta **agintarien babesik izan gabe.**

"Auziak erakundeen aurrean aurkezten dira, eta hor haien aurka ezer erakusten ez denez, zerbait zehatza egiten ez denez, orduan komunitatea ahultasun-egoeran geratzen da".

Ondorioak

Eragile asko saiatzen dira giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona, kolektibo eta komunitateen aurka egiten:

- Estatuaren organismoak: segurtasun-indarrak eta inteligentzia-organismoak, batez ere.
- Egitura paraestatalak, hala nola talde paramilitarrak.
- Botere politikoak: legebiltzarkideak, alkateak, gobernadoreak, hauteskunde-prozesuetako hautagaiak.
- Botere ekonomikoak: enpresa multinazionalak eta haien esanetara jarduten duten segurtasun pribatuko taldeak.
- Krimen antolatua: mafiak, narkotrafikatzaileak, pertsona-trafikoko eta -salerosketako sareak.

Beste eragile batzuk ere mehatxua izan daitezke defendatzaileentzat:

- Delinkuentzia arrunta
- Gizartea oro har: batez ere emakumeen, LGTTBI kolektiboko pertsonen eta mugimendu feministaren aurkako gorroto-krimenetan –eredu heteropatriarkala zalantzan jartzeagatik– eta herri indigenen edo afrikar jatorriko pertsonen ondorengoen aurkako krimenetan –lurraldea erauzketa-proiektuen aurka defendatzeagatik; gizarteari adierazten zaio kolektibo horiek garapenaren aurka daudela eta diru-sarrera berriak lortzeko aukera eragozten dutela–.

Giza eskubideen alde dauden pertsona, erakunde eta komunitateen aurka egiten dutenen helburu orokorra beren interesak defendatzea da:

- Interes ekonomikoak: enpresa batek ustiatzeko lurraldea eskuratzea, droga-, arma- edo pertsona-trafikorako korridoreak babestea
- Interes politikoak: arerio politikoak desagerraraztea
- Juridikoak: egia argitzea eragoztea

Helburu zehatza defendatzailearen eta dagokion kolektiboaren lana geldiaraztea izan ohi da. Hau azpimarratu da: erasoak banakakoak izan arren, helburua kolektiboari eraso egitea da, beldurra sortuz, gizarte-ehuna hautsiz eta mesfidantza sortuz.

5.1.3. Eragina eta ondorioak

Zenbait ondorio aipatu dira: osasun fisiko eta psikologikoaren narriadura, suminkortasuna, egonezina, lo falta, gizarte-bizitzaren narriadura –espazio seguruen eta denboraren faltagatik, edo inguruneko jendeak ez duelako nahi beste inork defendatzailearekin ikustea–, gehiegizko jarduera-dinamika, higadura, autozentsura, gizarte-ehunaren haustura, konfiantzaren haustura kolektiboaren beraren barruan eta erakunde desberdinen artean, gizarte-estigma...

Etengabeko arriskupean bizitzeak –beren aurkako eta beren senideen, lagunen eta kolektiboko kideen aurkako mehatxu eta eraso ugariei aurre egiten– eragindako ondorio nagusietako bat **estres kronikoa** da. ANSUR kolektiboak dion moduan, estres-maila horrek babesaren aldetik eragin positiboak izan ditzakeen arren –une oro alerta egotea–, ondorio larriak izan ditzake pertsonen osasun fisiko eta psikikorako.

Aipatutako ondorio gehien-gehienak **erasan fisiko eta psikologikoekin** lotuta daude, pertsona horiek bizi duten etengabeko estresaren ondorioz.

"Kriminalizazioaren eta judizializazioaren eraginak gorputzean gauzatzen dira".

"Higadura sakoneko prozesuak ere gertatzen dira: neke handia, eta atseden hartzeko eta pentsatzeko aukera gutxi".

"Adierazi nahi dugu jendeak aurre egin beharreko arrisku handietako bat estres-maila handiko egoeran etengabe bizitzea dela. (…) luzaroan irauten badu, azkenean, pertsonaren dinamika osoa arraro bihurtzen da (harremanak, dinamika pertsonala, bizi-dinamika, antolaketa...)".

Beste ondorio nabarmen bat da defendatzaile askok beren **lurraldetik**, komunitatetik, herrialdetik **alde egin** behar dutela.

"Mehatxu horien eraginak pairatzeko moduak askotarikoak dira. Gure kasuan, modu berehalakoenetako bat lurralde-dispertsioa da. Jada ez gaude gure lurraldeetan, hor egonez gero hil egingo gintuztelako".

Emakumeen aurkako mehatxu eta eraso espezifikoak daude, emakume izateagatik. Ba, ondorioei dagokienez, horiek ere **desberdindu** behar dira.

"Emakume defendatzaileen kasuan, zilegitasun-kentze horrek ondorio bereziak ditu; izan ere, haien lanean eragina izateaz gain, erasan nahiko larriak izaten dira emakume horien familia- eta komunitate-ingurunean. Emakumeek familia-zaintzan eta -mantenuan duten gizarte-eginkizuna dela eta, ingurune horietan ondorioak larriagoak izaten dira emakumeentzat gizonezko defendatzaileentzat baino".

"Gure seme-alaben osasun emozionala asko ahultzen ari da, eta hori ez da ikusten. Epilepsia, esfinterren kontrolik eza, portaera-alterazioak, egoera animikoaren eta fisikoaren alterazioak ikusten ari gara".

5.2. IDENTIFIKATUTAKO BABES-PREMIAK

5.2.1. Antolaketa-alderdiak

Landa-lanean parte hartu duten pertsona eta kolektibo gehienek azpimarratu dute **garrantzia alderdi kolektiboei** eman behar zaiela, eta ez banakakoei. Aipatu da mehatxatutako defendatzailea ikusarazi ohi dela eta kolektiboko pertsonak eta kolektiboaren garrantzia ahaztu egiten dela. Lehen aipatu denez, kolektiboko pertsona bati mehatxu egitearen helburua kolektiboaren lana geldiaraztea da, eta mehatxu hori kolektiboko kide guztientzako mezu bihurtzen da.

"Batzuetan, hutsegite hori egiten da, alegia, liderra ikusgaiagoa denez, 'atera dezagun hemendik' esaten da, baina ez da neurri berean kontuan hartzen oinarriko kideen egoera".

"Hedabideetan gutxiago ageri izan direnak, hain ikusgaiak ez direnak ere babestu beharko genituzke, haiek eusten baitiote borrokari, protagonista nagusiekin batera".

"Kolektiboagoak diren edo arrisku kolektiboa aipatzen duten kanpaina gutxi daude".

"Nazioarteko salaketetan, ekintzetan, batzuetan, gehiegi nabarmentzen dira pertsonak, banakako alderdiak".

"Demagun deabruaren abokatu gisa jardun nezakeela, ba, hemen Europan, neurri batean eroso gaudenoi gehiago interesatzen zaizkigu banakako defendatzaileak, nabarmendu dezakegun pertsona interesatzen zaigu".

Arriskuari buruzko ikuspegi kolektibo horren baitan, azpimarratu da **erakunde osoak duela babesari buruzko prestakuntzaren premia.**

"Prebentzio-neurriei buruzko lantegien premia dago, lurraldean dauden lagunek beren arriskuak baloratzen eta neurriak hartzen ikas dezaten".

"Arriskuen azterketa eta segurtasun-planak egiteko dituzten gaitasunak sendotu behar dira".

"Ahalduntzea ere bada, edo prestakuntza. 'Gerra luzea izaten ari den herrialde batean gaude, egoera latzean, eta jada badakizkite gauza asko' pentsa genezakeen arren, belaunaldi berri batez ari gara eta nolabaiteko nekea ere badago, eta jada ez dago haien segurtasunari buruzko ardurarik hartzeko gogoa".

"Eta gero, lantegiak eta trukerako eremuak antolatzen ditugu. Trukerako eremuak, batez ere".

Oinarriko taldeen eta komunitateen kasuan, azpimarratu da prestakuntza izateko eta sendotzeko premia dagoela giza eskubideen arloko **erakunde 'adituekiko' menpekotasuna eragozteko** eta prozesuen baitan zatiketa-arriskuei aurre egiteko.

"Oro har, antolatuta dauden komunitateetan, ez daude oso trebatuta zer ahultasun dituzten jakiteari dagokionez. Batzuetan, informazioa ez da iristen, ez dakite nola egin behar den salaketa, ez dute inprimaki bat eskura. Eta fundazioari, giza eskubideen arloko erakundeari jakinarazi arte itxoin behar dute, erakunde hori lurraldera joan eta dokumentatu arte. Beraz, prestakuntza gehiago falta da, lurraldean bertan batez ere".

"Jendea prestakuntza lantzen duen eta babes-mekanismoak ezagutzen dituen erakunde batekin ez badago, orduan ez da erraza izaten mekanismo horiek eskuratzea".

"Beraz, prestakuntza gehiago falta da, lurraldean bertan batez ere". Batzuetan, oinarriko erakundeek menpekotasuna dute giza eskubideen arloko adituekiko. Prestakuntza eskuratu behar da, heziketa-materialak (autobabesa nola egin behar den azaltzeko kartillak), nola egiten diren alertak, nola jakinarazi behar zaien erakundeei, nola egin behar diren salaketak, nola kudeatu behar diren gero alertak, salaketak".

"(Dauden tresnak ezagutu behar dira), hala nola, Giza Eskubideen Defendatzaileen Babes Bereziari buruzko Europar Batasuneko Gidalerroak".

"Funts ekonomikoei buruzko informazioa oso garrantzitsua da, prekarietate handiko herrialdeetan bizi baikara".

"Halaber, tokiko prozesuak sendotu behar ditugu, gure inbertsioek (denbora, ahaleginak, baliabideak...) komunitate-prozesuak izan behar dituzte ardatz".

Prestakuntza egokia izateari eta informazioa eskuratzeari dagokionez, **erabilitako hizkuntza eta hizkera** azpimarratu dira. Herrien hizkuntzetan itzulpen edo dokumentu gehiago egitearen premia ikusi da, bai eta publikoen araberako hizkera egokitua erabiltzeko premia ere.

"Beste gai garrantzitsu bat hizkuntza da. Hizkuntza indigena asko daude Mexikon, Guatemalan. Heziketa-tresna eleanitzak eskura izan beharko genituzke".

"Eta hizkuntza ere kontuan hartu behar da. Azalpen laburrak eta argiak egin behar dira. Hizkera teknikoa alde batera utzi behar da. Esate baterako, testuinguru hitza behin eta berriz erabiltzen dugu, baina hitz horren esanahia ez du edozeinek ulertzen".

Bereziki azpimarratu da garrantzitsua dela kolektiboen eta komunitateen gaitasunak sendotzea alderdi hauetan: **testuinguruaren azterketa, eta arriskuaren eta babesaren azterketa.**

"Osa zaila da erasoa noiz gertatuko den jakitea".

"Aste horietan gertatuko dela aurreikusi nahi da, gertatuko denaren aurrean ahultasuna zenbatekoa den neurtu nahi dugu".

"Mehatxuak eta erasoak Internet bidez diagnostikatzeko tresnak behar dira, mehatxu eta eraso horiek kuantifikatzeko eta defendatzaileentzat benetan zer arrisku-maila duten ebaluatzeko".

"Gertatzen ari denari buruzko azterketa sakonagoak egin behar dira, bai eta patroiak identifikatu ere, eskualde osoko eta mundu osoko prozesuak alderatuta. Informazioa sistematizatzeko eta azterketa konparatiboak egiteko premia handia dago".

"Hor, komunitateekin, jendearekin, prebentzioaren arloan jarduten hasteko, honelako planteamenduak eginda: 'Demagun…'. Aurretiko lana egitea, egoera- eta koiuntura-azterketekin ere zerikusia duena, honako hauek planteatuta: zer gertatzen den, zer gerta daitekeen, nor dagoen tartean, zer interes dituzten tartean dauden horiek, zer aliantzamota izan ditzaketen. Ez soilik jada badagoena, baizik eta gerta litekeena ere. Egoera errealak imajinatu, eta hortik aurrera, erreakzioak".

"Beharrezkoa da mehatxuak banakakoen ikuspegitik ez aztertzea; banakakoak kontuan hartuta, pertsona bat beste pertsona baten kontra da, baina osorik hartuta, berriz, ikusten da oso ondo antolatutako egitura kriminala dela, eta ondo dakitela zer gertatzen ari den".

"Gure esperientzian ikusi ditugun gauzetako bat izan da, halaber, antolaketa-jardunbide edo estrategia politikoen

multzo batek arriskuak sortzen zituela, eta jardunbide eta estrategia horiek martxan jartzen zirela aurretik aztertu gabe nola jarrai zitekeen lan hori egiten bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jarri gabe".

Azterketa-tresnetan eta -metodologien erabileran **genero-ikuspegia txertatu** behar dela azpimarratu da.

"Emakumeentzako material espezifikoak izateak gauzak errazten ditu. Erabilgarria da".

"Arrisku-azterketa oraindik oso tresna garrantzitsua dela iruditzen zaigu, oraindik ere lan handia egin behar baita hori genero-ikuspegia erabiliz egiteko. Oraindik ere, dauden tresnek mugak dituzte alde horretatik".

"Ikuspegi feminista izan behar da, ez dira giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeak banakako pertsonatzat hartu behar. Ez da nahikoa auzia, erasoa, segurtasun-neurriak, agintariak eta abar soilik aztertzea… Harago joan behar da".

Elkarrizketa askotan azpimarratu da **beharrezkoa dela kolektiboen barruan** antolaketa-jardunbideetako **jarrera hetero-patriarkalei eta matxismoari buruzko lana egitea,** jardunbide horiek gizarte- eta kultura-testuinguruaren berezko balioen isla baitira. Erakundeetan egiturazko diskriminazioa dagoela azpimarratu da: gizonezkoen lidergoa soilik sustatzea, emakumeen aurkako jazarpen-egoerak…

"Gizarte-mugimenduaren barruan ere erasoak izaten dira. Erasoak ez dira eraso zuzenak soilik, baizik eta emakumeek bizi dituzten egiturazko diskriminazio-egoerak ere. Egoera horiek oso eragin zuzena dute emakume horiek giza eskubideen alde egiten duten lanean".

"Hau da, gainerako emakumeek bezala, giza eskubideen alde jarduten duten emakumeek ere lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak egin behar izaten dituzte. Eta gizarte-mugimenduen barruan gertatzen dena ere kontuan hartu behar da. Izan ere, mugimendu horietan, diskriminazioa indartzen duten jardunbideak daude oraindik ere. Dela emakumeen lidergoa ez aitortzea, dela mugimenduen barruan emakumeen aurka gertatzen diren jazarpen- edo indarkeria-egoerak gertatzea".

"Giza eskubideak defendatzen jarduten duten emakumeei dagokienez, guk haien ingurune hurbilean daudenak ere sartzen ditugu eraso-egileen artean. Dela familiakoak, dela erakundeko kideak berak".

"Eta lurraldearen defentsan jarduten duten erakundeetako agintaritzan sexu-jazarpena eta -indarkeria salatu behar izanez gero, hori are konplexuagoa da. Izan ere, guk jaso izan dugu emakume elkartekideen informazioa, gune honetara etorri baitira […] negar egitera, botatzera, esatera zein mingarria den lurraldeen defentsan martxak, protestaldiak, agerpen publikoak egiten jardunaldi luzeak eman ondoren gizonezko elkartekideek, mozkortuta, emakumeak jazartzea, eta zenbait emakumek ere sexu-indarkeria jasatea".

"Lehenik eta behin, nire eremu segurua komunitatea zen, lurralde-defentsan buru-belarri ari nintzelako, arima, gorputz eta espiritu osoz, baina barruan zenbait erasotzaile genituela konturatzean eta haiek salatzen hasi ginenean, erabateko gaitzespena eta legitimotasun-kentzea baino ez genuen lortu, nik batez ere, eta hor hasten dira estigmatizazio-kanpainak".

"Matxismoa ez da hor kanpoko munduan, gaizkileen artean, soilik gertatzen den zerbait; gure etxeetan ere bizi dugun zerbait da, eta batzuetan oso gogorra izaten da hori onartzea, baina ikusarazten eta geldiarazten ez badugu, ezin izango ditugu emakume defendatzaileentzako baldintza hobeak lortu".

"Hausnarketa-prozesu luzeagoak beharko lirateke mugimendu mistoetan emakume izateak zer dakarren aztertzeko, eta hor erronka handia dago, gizonezko defendatzaile askok oraindik ere esaten dute-eta emakumezko defendatzaileek gizarte-mugimenduen barruan berdintasunaren alde egiten duten borrokak mugimendu horiek zatitzen dituela eta emakumeen borroka hori boteretsuen mesederako dela".

"Emakumeak legitimatuta eta babestuta sentitzea babes-premia nahiko handia zen".

"Gertaeren larritasuna minimizatzen dutela, genero-aurreiritziak tarteko, emakume horiek histeriak jota daudela edo esajeratzen ari direla".

"Eta emakumeentzat, zehazki, arazo bat da gizarteak, batzuetan, ez onartzea emakumeek giza eskubideen alde egiten duten borrokan betetako eginkizuna. Maila jakin bat arte ondo ikusten da, baina maila horretatik aurrera, emakume defendatzaileen isolamendu handia eragiten du".

5.2.2. Harremanekin lotutako alderdiak

Landa-lanean parte hartu duten pertsona guztiek azpimarratu dute **beharrezkoa dela laguntza-sareak eta aliantzak eraikitzea**, maila guztietan babesa izateko (familian, komunitatean, tokian-tokian, herrialdean eta nazioartean).

"Sareek salbatzen dute. Lagun egitean oinarritutako babesa da; sendotasun emozionala ematen dizu eta konfiantzazko gune bat sortzen du zure inguruan".

"Gertakariak gertatzean, sare horiek lagungarriak dira, ikusarazteko, salaketak egin ahal izateko, zenbait erakunderen aurrean eragin handiagoa izateko, sareen babesa duzulako. Eta hori lagungarria da elkartasuna, salaketa, are gehiago aktibatzeko eta zehazteko".

"Eta protokoloak ere kanpo-dimentsio batera pasatzen dira; hau da, sareak, beste erakundeekiko koordinazioa eta aliantzak, arrisku-egoerari nola heldu ikusteko".

"Guretzat komunitatea baita lurraldearen defentsan jarduten ari den emakume elkartekide baten babes-eremu hurbilena".

"Atal bat alderdi pertsonala da. Alderdi horretan zehaztu dugu zein diren gure konfiantzazko senideak, nork emango digun berehalako laguntza eta babesa. Eta, bidaiatu behar izanez gero, noren kargu utz dezakegun gure semealaben zaintza".

"Laguntza feministako sareak daude".

"Eta hor erronka handia dago, emakume horiek sareak behar baitituzte. Eta beste gizarte-mugimenduekin eta -prozesuekin eta era guztietako erakundeekin antolatzea oso garrantzitsua da hobeto babestu ahal izateko. Emakume defendatzaile asko daude; esate baterako, defendatzaile izatea hautatu ez duten emakumeak daude, bizitzako gertaeraren batek justizia eskatu behar izateko egoeran jarri dituenak".

"Funtsezko premisa bat dago: inork ezin du emakume defendatzaileentzat babesa antolatu bakardadean, ezta erakunde bakar batek ere, hori ez da bideragarria. Gero eta garrantzitsuagoa da lotura-prozesuak egitea sare eta erakundeen artean".

"Erakundeen arteko lan hori oso garrantzitsua eta oso konplexua da. Antolaketa-prozesu horiei eusteko, oso ahalegin handia egin behar da. Pazientzia handia behar da, bai eta koiunturei, lidergoei, herrialdeetako egoera zehatzei eta parte hartzen duten mugimenduei buruzko ezagutza-maila handia ere. Horregatik, aliantza horiek egotea, besterik gabe bada ere, lorpen handia da".

"Nazioarteko sare hori are gehiago sendotu behar da, jakin behar da nola aprobetxatu hobeto".

"Horregatik, baliatzen den aukera erakundeek berek beren sareak sendotzea da, arriskuak murrizteko".

Aipatu da laguntza-sareek ematen duten babesa erabilgarria izango dela sareok **ikusgai bihurtzen diren** neurrian.

"Beharrezkoa da babesa dutela ikusaraztea".

"Egia da pertsona horien profila, oro har, publikoa dela. Haien lidergoa jada ikusgaia da eta jatorrizko eremuan mahai gainean jartzen dena da begi asko daudela pertsona horri begira".

Sareen eta aliantzen eraketa herrialdean eta nazioartean **eragin politikoko ekintzak egiteko premiarekin** lotu da. Helburuak hauek izango lirateke: babesa handitzea, sareak indartzea, lurraldean nazioarteko erakunde eta organismoen presentzia lortzen saiatzea, erantzukizunak eskatzea, etab.

“Interlokuzio hori nire babes-maila handitzeko erabiltzen dut”.

“Mezuak estatuei. Mesoamerikatik kanpoko beste estatu batzuetako gobernuek eta nazioarteko erakundeek erantzukizunak eskatzen egon behar dute”.

“Nazioarteko eragina babes-mekanismo bat da berez, bai eta sareak eta erakundeak, Batzordea eta Gorte Interamerikarra (bere neurrien bidez) eta NBE (errelatorearen bidez) ere”.

“Agintariekiko interlokuzio horren helburuak kasuen kostu politikoa handitzearekin du zerikusia, ez arrisku-egoerarekin, inor ez baita ausarten emakume defendatzaile baten segurtasuna herrialdeko mekanismo baten eskuetan jartzen”.

Alde horretatik, **eskaera urgenteen erabilera** ere aipatu da. Eskaera horiek honako hauetan txertatzen dira: eragin-ekintzetan, eratutako sareen antolaketa-ekintzetan (horrela erreakziona dezakete), eta dagozkion erakunde publikoei eta nazioarteko erakundeei erantzukizunak eta erantzunak eskatzeko ekintzetan.

“Beti esaten digute garrantzitsuagoa dela larrialdi-egoeretan alertak eta deialdi urgenteak egiteko baliatzen den eragin-programa”.

“Oso premia garrantzitsua da nazioarteko salaketak egitea, eragin positiboak izan ditzakete-eta zenbait herrialdetan”.

“Azkenik, herrialdeetan ekintza bizkorrak egiteko sareak izateko aukera. Sare horiek erabilgarriak izan dira berehalako arriskuko egoerei aurre egiteko”.

Beste behin, gogorarazi digute eskaera urgenteetan, oro har, banakakoa dela nagusi, pertsona defendatzailea, alegia, eta **ez dela kolektiboa behar adina kontuan hartzen.**

“Kolektiboagoak diren edo arrisku kolektiboa aipatzen duten kanpaina gutxi daude. Nazioarteko salaketetan, ekintzetan, batzuetan, gehiegi nabarmentzen dira pertsonak, banakako alderdiak”.

Aliantzen, sareen eta eragin-ekintzen emaitza ikus daiteke, adibidez, nazioarteko misioetan, nazioarteko erakundeek, kidego diplomatikoko kideek, gobernu-ordezkariek edo elkartasun-erakundeek **lurraldean duten presentzian**. Defendatzaileen eta haien kolektiboen ustez, hori guztia oso beharrezkoa da.

“Babesari buruzko gaietan, haiek joan, eta lurraldean aztertzen dute egoera, nola dauden salaketak, eta eragin-ekintzetan laguntzen dute erakundeen aurrean. Misioetan parte hartzen duten batzuk legebiltzarkideak baitira, erakundeetako kideak, edo legegileen kolektibo ezagunetakoak, eta bisitetan, erakundeetara joatea lortzen dute, egoeragatik kezkatuta daudela esateko. Erakundetik erakundera hitz egiten dute, berdinkideak balira bezala, eta horrela, tokiko erakundeak egoeraz gehiago arduratzea lor daiteke”.

“Alde horretatik, nazioarteko presentzia oso garrantzitsua da, egoera ikusgai bihurtzea lortzeko”.

“Nire etxera PBIren txalekoak jantzita etortzea, te bat hartzea, nire larritasunak entzutea, besarkada bat ematea eta, gero, beren bulegora itzultzea, ba, agian denbora galtzea dela pentsa daiteke, baina begiratzen ari direnak hori guztia ikusten dute. Eta urrun geratzen dira. Guretzat horrek guztiak balio handia du”.

“Nire ustez, nazioarteko behatzaileak egoteagatik lortu dut bizirik jarraitzea”.

“Esate baterako, abokatu-kolektibo bati laguntzen diogu; enbaxadoreen bisitak izaten dituzte beren bulegoan eta sariak jasotzen ari dira munduko zenbait lekutan. Neurri batean, babes-maila handia dute. Handia, ez soilik jende askoren babesa dutelako, baizik eta herrialdean garrantzi handia duen jendearen babesa dutelako, hala nola Estatu Batuetako enbaxadorearena”.

“Jendeak balio handia ematen dio nazioarteko laguntzari”.

Elkarrizketatutako emakumeetako batek honela laburbildu du **aliantzen eraketa integrala eragin-ekintzen eta nazioarteko presentziaren bidez:**

"PBIk herrialdetik atera behar izan ninduen. Nazioarteko bira bat egin nuen, lurralde-defentsan jarduten dugun emakume defendatzaileok dugun arrisku-egoera larria salatzeko, eta Europako Legebiltzarreko legebiltzarkideak bisitatu nituen. Bira horretatik itzultzean, erreakzio positiboak lortu nituen, oso garrantzitsuak, ez bainuen imajinatzen zenbateko eragina lortuko nuen. Itzuli nintzenean, adibidez, Alemaniako enbaxadak interes handia erakutsi zuen. Esate baterako, Alemanian nirekin bildu ondoren, Europako Legebiltzarreko legebiltzarkideetako bat etorri zen bisitan, nire kasua ezagutzeko, komunitatearen arrisku-egoera ezagutzeko. Beste enbaxadore batzuek ere interesa erakutsi zuten, eta hori PBIk nazioartean arazoa ikusarazteagatik izan zen, PBIren aktibazio-lanagatik. Arazoa segurtasun-azterketaren eta -protokoloaren arabera ikusarazi zuen, horren emaitza izan baitzen nire profil politikoa ikusaraztea garrantzitsua zela".

5.2.3. Alderdi psikosozialak

Eragin psikosozialei heltzeko beharraren kontzientzia dagoela dirudien arren, oraindik ere **jaramon gutxien egiten zaion babes-ardatza** dela ematen du.

"Kasu berri batzuetan, alderdi psikosozialak gehiago lantzea falta da (…) Defendatzaileen belaunaldi berriek prestakuntza gehiago izan behar dute alderdi psikosozialen inguruan, biktimarekiko arretan, alderdi emozionalen lanketan".

"Batzuetan, egunerokoagatik, unean uneko harrabotsagatik, dena mekaniko eta instrumentalizatu bihurtzen da, eta biktimari arreta gehiago eman behar zaio".

Ikuspegi psikosoziala garrantzitsua den arren, besteak baino gutxiago baloratzen dela adierazi dute.

"Ondo egon ezean, babes- eta segurtasun-neurri guztiek huts egingo digute".

"Duela gutxi, giza eskubideen defendatzaile mexikar bat entzun genuen esaten laguntza psikosozialak laguntzen diola gehien babes-kontuetan. Uneotan, laguntza psikosoziala aurkitzea da arazo handiena".

Hain zuzen ere, eraginei buruzko atalean ikusi dugun moduan, eragin horietako asko psikosozialak izaten dira, eta, beraz, heldu egin behar zaie eta **alderdi emozionalak landu.**

"Erresistentzia-ekintzetatik markatutako antolamendu-dinamiketara, dakigunez, askotan nekeagatik, exijentzia handiegiagatik, sakrifizioagatik, heroismoagatik…".

"Jazarpen hori gorputzean somatizatzen denez, guretzat esku-hartzeek integralak izan behar dute, bai medikoak, bai psikologikoak…".

"Alderdi bat aringarria da, (prozesu medikoak, arreta psikosozialekoak) jasaten laguntzen du, baina lotura sinboliko-territorial-espirituala funtsezko alderdi bat da".

"Bada, nola egiten diozun aurre lekualdatze politiko-territorialari, zure jaioterritik eta zure memoria kolektibo, sinboliko eta esanahiduna eraiki zenuen lurraldetik lekualdatua izateak eragiten dizkizun sentimenduei; psikologiak ez dio horri heltzen. Bada, iruditzen zait premia espezifikoetako bat osatze emozional-espiritualaren dimentsioa barne hartzea dela; horrela esaten diogu emakume indigenok. Edozein lurraldetan izan daiteke, bizi-premia gisa".

"Neurri garrantzitsu bat daukagu, aldi batez irteteko aukera ematen duena, baina ez du oso arrisku handiko egoerekin lotuta egon behar, higadura sakoneko prozesuekin baizik. Hiru aterpetxe ditugu eskualdean, eta haietako bat norbere buruaren zainketan dago espezializatuta. Zuena bezalako aldi baterako birkokapen- edo babes-programetakoak oso irtenaldi luzeak dira, eta oso zaila da hori lortzea".

Hainbat elkarrizketatan alderdi emozionalarekin lotutako neurri bat aipatu da: **eremu seguruak sortzea**, espazio fisiko gisa ez ezik, zainketa-ingurune emozional gisa ere ulertuta.

"Segurtasun-neurriak ez ezik, eremu seguru eta demokratikoak sortzearekin du zerikusia".

"Gorpuzte-prozesu politiko-territoriala esaten diogu. Hortik abiatuta egiten dugu lan; emakumeen giza eskubideen defentsa-lana deritzogunaz gain, guretzat beste alderdi indartsu bat dauka, emakumeen babes espirituala esaten dioguna".

"Emakumeak elkartzeko eremu sinbolikoak, suaren bidez, belarren bidez, sendatze-eremuak emakumeekin".

"Autozainketa-eremuek oso ondo funtzionatzen dute".

"Sentsazioa daukat ihesbideak falta direla, eta norbaitek eman behar dituela, norbaitek eman behar duela eremu seguru bat. Joan-etorriak egiten dituzte, baina kontrol-maila izugarri horretara itzultzen dira gero. Guretzat oso elementu garrantzitsua da hori, normalean asko azpimarratzen baita gehien nabarmentzen diren pertsonak, ageri-koenak direnak, liderrak, babestu egin behar ditugula beren eremuetan. Baina errepresio edo indarkeria potentzia-la 'behetik' 'gora' ere etor daiteke. Eta denok alerta-egoeran bizi gara. Badirudi batzuek, legez, hitz egiteko espazio gehiago daukatela, eta beste batzuek, berriz, gutxiago. Baina horrek pixkanaka ahuldu egiten du".

Elkarrizketatuek adierazi zuten, defendatzaileen zainketa emozionalaz hitz egitean, ezinbestekoa dela **ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia** integratzea. Hain zuzen ere, pertsona, kolektibo edo komunitate bakoitzak bere premiak ditu, zer ingurunetan dagoen, zer historia, identitate eta testuinguru kultural dituen… Era berean, beste zenbaitek adierazi zutenez, aldi baterako birkokapen-programetan alderdi emozionala kontuan hartzen bada ere, batzuetan ez dira egokitzen pertsonen jatorrizko kulturara; hau da, harrera-herrialdeko erreferenteak erabiltzen dituzte, defendatzaileen erreferenteak erabili beharrean.

"Uste dut funtsezko alderdi bat seme-alabak direla, guretzat ez baita bideragarria haiek gabe irtetea; eta haiekin irteten bagara, ez da bideragarria eskolarik gabe uztea. Zenbait premia maiz ez dira ikusten, eta, askotan, giza eskubideen defendatzaileek eta babes-erakunde tradizionalek ere ez. Gure seme-alaben osasun emozionalak oso ondorio kaltegarriak jasaten ditu, eta hori ez da kontuan hartzen".

"Defendatzaileekin hitz egin behar da, ikusteko haietako bakoitzari zer eskemak balio dion gelditu, bere burua zaindu eta atseden hartzeko".

"Adibidez, nabarmentzen dugun premia bat da –defendatzaileentzako arreta psikosozialeko protokoloak motz geratzen direlako– ez dela alderdi bat integratzen, defendatzaileei segurtasun eta babes emozionala ematen diena: ikuspegi indigenatik egindako esku-hartzea".

"Programako pertsona guztiak oso kezkatuta zeuden nire egoerarekin, baina kulturalki ez zuten ulertu zer ari zitzaidan gertatzen. […] Hori dela eta, uste dut nire premia afektiboak ez zirela haiengana iritsi".

"Komenigarria litzateke hobeto ulertzea zer girotan dagoen defendatzaile bakoitza".

Konfiantzaren eta hurbiltasunaren garrantzia ere aipatu zuten, zainketa emozionaleko prozesuak egitean babeserako autozainketa-sareak sortzeko.

"Gure sareetako defendatzaileek gehien baloratzen dutena da presentzia, norbaitekin hitz egin ahal izatea, aurrez aurre, telefonoz, edozein modutan".

"Tokian bertan: autozainketa-sareak sendotzea, alderdi psikosozialak lantzea".

Ikuspegi psikosozialetik begiratuta, elkarrizketetan nabarmendutako funtsezko gaietako bat izan da defendatzaileek ziur jakin behar dutela giza eskubideen aldeko lanak aurrera jarraitzen duela; hau da, **defendatzaileek ez dute beren burua zaindu ahal izango horrek berekin ekarriko badu haien lana eta kolektiboarena ez egitea.**

"Baina haien lanari eta loturari segida emango zaiela jakitearen lasaitasuna ere eduki behar dute".

"Lana uzten ez baduzu, haustura ez da hain gogorra, eta errazagoa da mentalki eta profesionalki aurrera jarraitzea".

5.2.4. Segurtasun-neurriak

Babeserako segurtasun-neurriak martxan jartzean, oso kontuan hartu beharko da defendatzaileen eta haien kolektiboen testuingurua. Adibidez, segurtasun-kamera bat erabilgarria izan daiteke bulego batean, baina ez luke batere zentzurik izango komunitate batean. Babesaren mahaiaren hanka honi dagokionez, premia espezifiko hauek adierazi dira:

- Nazioarteko laguntza
- Laguntza juridikoa
- Aldian behingo irtenaldiak

Nazioarteko laguntza dela eta, tokian bertako laguntza-ereduak aipatu dira, noizean behingo bisita eta behaketa-misioetatik harago. Horrek berehalako babesa dakar eta defendatzaileak agerikoagoak egiten laguntzen du. Gainera, eragiteko eta sareak eraikitzeko ekintzak ekarri ohi ditu berekin.

"Nazioarteko presentziak berebiziko garrantzia du agerian jartzeko. Egiten dugun guztia publikoa da, eta, horri esker, min eman nahi digutenak dauden lekuan gelditzen dira. (…) Nazioarteko pertsonek berek askotan pentsatzen dute ez dela askorik egiten ari".

"Arrazoiren batengatik ezin izango balitz laguntza jaso, telefono bidez monitorizatzen da. Orduak eta ibilbideak adosten ditugu, agendaren berri ematen dugu, zer lekutan egongo garen esan, eta telefono bidezko monitorizazioa egiten dute antolaketa- edo lurralde-guneetan dauden hiru kidek, gutxienez; monitorizazio-deiei nola erantzungo diegun definitzen joaten gara, deietarako gakoak ditugu, etab.".

"Hamar kidetik bik Giza Eskubideen Amerikarteko Gortearen kautela-neurriak dituzte. Beste bost kidek Nazioarteko Bake Brigaden laguntza dugu. Nik daramat denbora gehien nazioarteko laguntzarekin. Beste kide batzuek ACOGUATEren nazioarteko laguntza jasotzen dute".

Elkarrizketatuek azaldu dute nazioarteko laguntza ez dela eraginkorra testuinguru guztietan.

"Nazioarteko laguntza erabilgarria izan daiteke, defendatzailearen testuinguruaren arabera. Mexikon eraginen bat izan du, gobernu federaleko erakundeak erasotzailetzat identifikatzen saiatzean, baina tokian bertan oso zaila da, ez baitie axola. Ez dakite nor diren nazioarteko erakundeak, eta ez die axola".

Laguntza juridikoak kriminalizazioari eta judizializazioari (edo muntaia judizialei) aurre egitea du xede, epaiketetan behaketa-lanak eginez edo aholkularitza juridikoa eta psikojuridikoa emanez; esate baterako, lekukoak epaiketetarako prestatuz.

"Askotan, kriminalizazio-estrategien aurrean, jende askok ez du aholkularitza juridikorik izaten".

"(Beharrezkoa izan daiteke) laguntza juridikoa eta epaiketen behaketa sustatzea".

Babeserako eta segurtasunerako neurri fisiko zehatzei dagokienez, hauek aipatu dira: bulegoak egokitzea, protokoloak eta segurtasun-planak prestatzea, gorabeherak sistematizatzea, azterketa-tresnen eta -metodologien arloko prestakuntza jasotzea (testuinguruaren eta arriskuaren azterketa, segurtasun-planak eta protokoloak egitea), adi egotea, etab.

"Esaterako, arriskutsuak edo mehatxuzkoak izan daitezkeen egoeren erregistro-taula bat betetzen dut".

"Adi egoteari uztean hil dira kide gehienak. Familia bisitatzera joatean, eremutik ateratzean, pixka bat deskuidatzean gertatzen da, jolas-eremuetan. Komunitatetik ateratzean ere gertatzen da".

"Benetako egoerak imajinatu behar dira, eta, hortik abiatuta, erreakzioak".

"Beharrezkoa izan daiteke gaitasunak sendotzea segurtasun-planak egiteko, eta lan-egoitzetako segurtasuna hobetzea, besteak beste".

"Kontuan har daiteke muturreko neurriren bat, hala nola izu-botoia, kamerak, azpiegitura, eskoltak, garraio segurua…"

Bestalde, **Alerta Goiztiarren Sistema** baten premia ere aipatu da (sareak eta aliantzak eraikitzearekin dago lotuta hori ere), erreakzio integrala eta berehalakoa sortzeko balioko duena. Azpimarratu denez, testuinguru aldendu batzuetan zaila da komunikabideak eta sareak erabiltzea.

"Behar-beharrezkoa da alerta goiztiarrak aktibatzea".

"Komunikabideen bidez salatu eta agerian jarri behar dira, eta babes-bermeak exijitu behar zaizkie erakundeei".

"Ikusi dugu kasuak hobeto egituratu behar direla lurraldean bertako babes-mailari dagokionez. Hiriko jendeak erantzun bizkorragoa du komunikazioagatik eta antolaketa-gaitasunagatik, baina, landan, babes-neurriak eta -erantzunak martxan jartzeko zailtasunak daude, komunikazioagatik. Hirietatik urrun daude, komunikazioa berandu iristen da; gertakariaren unean, jendea ez denez sare sozialetara sartzen, ez duenez komunikazio-bideetara jotzen, kosta egiten da neurriak artikulatzea".

Landa-lanean parte hartu duten gehienek nabarmendu dute muturreko kasuetan **lurraldetik irten** behar izaten dela aldi baterako edo epe ertainerako, dela herrialdeko beste leku batera dela atzerrira. Alabaina, defendatzaileek ez omen dute aukera hori baliatu nahi izaten, ingurunearekin eta lanarekin hautsi behar izaten baitute. Aipatu dute, halaber, aldi baterako birkokapen-mekanismoek malguagoak izan beharko luketela.

"Nire esperientziaren arabera, ohikoa da defendatzaileek herrialdetik irten nahi ez izatea; eskubideak defendatzen ari gara, ez dugu beste leku batera oporretara joan nahi".

"Hainbat modutan jasan daitezke mehatxu horien ondorioak. Berehalako moduetako bat, gure kasuan, lurralde-sakabanaketa da. Jada ez gaude lurraldeetan, han egoteak hilda egotea esan nahi baitu".

"Eta nazioartean, aldi baterako birkokapen-programak daude. […] Aldi baterako mekanismoa da, epe ertainekoa, eta asilo-eskaerak aktibatzen dira jendea ateratzeko".

"Baina, batzuetan, izapide asko egin behar izaten dira, eta, orduan, pertsonak herrialdetik azkar ateratzeko mekanismoak ere aktibatzen dira, nazioarteko erakundeekin sareak artikulatuz".

"Kide bat mehatxatzen badute, eta komunitatean oso ageriko profila badu, jarduera uzten du".

"Tokian bertan lantzen diren mekanismoak daude, birkokatzeko, eskualde arriskutsuetatik atera eta hirietara eramateko, GKEen eta fundazioen babes-etxeetara".

"Guretzat, gauza garrantzitsuenetako bat da berehala babes hartzeko eremu bat izatea. Toki txiki bat daukagu, baina publikoki ez dugu hari buruz hitz egiten (ez da ageri helbidea, telefonoa ez ezer, gure segurtasun-protokoloan horrela jasota baitago). Berehalako eremua da arrisku handiko egoeretan".

“Beraz, beste defendatzaile batzuekin komentatu dugun premia handi bat da ez dagoela arrisku politikoan dauden defendatzaileek aldi batez babes hartzeko eremu bat”.

“Denak ez gara leku batean finko bizi. Une batean eta leku batean gaude, eta segurtasun-protokoloa dela eta, zenbat hilabete igaro diren aztertzen da, zer gorabehera gertatu diren; eta, bestela, beste leku batera eramaten gaituzte. Kide batzuek herrialdetik joan egin behar izaten dute”.

Aldi baterako birkokapenari dagokionez, azpimarratu dute ez zaiola norbanakoari bakarrik begiratu behar, **kolektiboari** baizik, eta **ikuspegi diferentziala** eduki behar dela, emakume defendatzaileek lurraldetik ateratzeko izaten dituzten zailtasun espezifikoei aurre egin ahal izateko, batik bat.

“Herrialdetik irteteari dagokionez, ikusi dugu kideek zailtasunak izan dituztela irten eta atseden hartzeko, segurtasun-arrazoiak direla eta joateko. Arrazoi askorengatik. Ez dutelako gertatzen ari denaren larritasuna onartzen, irtetea zaila delako eta askotan familiarekin bidaiatu behar izaten dutelako; eta horrek muga asko ditu, ez direlako ondo sentitzen haiek joanda, beste asko egoera berean daudela jakinda. Erakunde eta komunitateen barruan ere dinamika bat sortzen da: ‘zergatik haiek bai eta beste batzuk ez’”.

“Uste dut funtsezko alderdi bat seme-alabak direla, guretzat ez baita bideragarria haiek gabe irtetea; eta haiekin irteten bagara, ez da bideragarria eskolarik gabe uztea. Zenbait premia maiz ez dira ikusten, eta, askotan, giza eskubideen defendatzaileek eta babes-erakunde tradizionalek ere ez”.

“Batzuetan deskuidu hori izaten da: bat liderra denez, agerikoagoa denez, ‘atera dezagun lurraldetik’ esaten da, eta ez gara ohartzen oinarrizko kidearen egoeraz”.

Larrialdietarako funts malguak behar direla ere nabarmendu da, berariaz babesa finantzatzeko, bai eta giza eskubideen **emakume defendatzaileentzako funts espezifikoak** ere, ez bakarrik babesaren dimentsio politikoari begira, baita osasun fisikoari –korporala– eta psikosozialari ere –dimentsio komunitarioa eta espirituala barne–.

“Larrialdietarako berariazko funtsak behar dira, defendatzaileen osatze emozional, espiritual eta fisikoko prozesuetarako. Alderdi fisikoa alde batera uzten ari da; alderdi politikoa lantzen da, baina ez horrenbeste fisikoa, ekonomikoki ere konplexua delako. Oso garrantzitsua da defendatzaileen alderdi medikoari heltzea. Gorputza da funtsezko erresistentzia-tresna.”

“Arauen esparruan planteatu dugu zer arazo ditugun defendatzaileentzako larrialdietarako funtsak erabiltzeko, emakume defendatzaileok lurraldean ditugun testuinguru desberdinak eta defendatzaile askoren pobrezia-, kriminalizazio- eta judizializazio-egoera direla eta”.

“Funts ekonomikoak oso garrantzitsuak dira, prekarietate handiko herrialdeetan bizi baikara; baina garrantzitsua da, halaber, funts horiek ikuspegi feminista izatea”

6. IDENTIFIKATUTAKO BABES-PREMIEN AZTERKETA

Bibliografia berrikustean eta landa-lana egitean bildutako informazioarekin, azter dezagun nola lagun dezakegun babes-premia horiek betetzen giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona, erakunde eta kolektiboekin elkarlanean aritzen garen gizarte-erakundeok, lau hankako mahaiaren proposamena kontuan hartuta: antolaketa-alderdiak, harremanak, alderdi psikosozialak eta segurtasun-neurriak.

Azterketa hau antolatzeko, hiru une nagusitan pentsa daiteke (prebenitzea, erreakzionatzea eta 'normaltasunera' itzultzea[5]), larrialdiei mehatxu edo arrisku-egoera onartezin bat dagoenean bakarrik ez erantzuteko:

- Prebentzio-neurriak: arrisku-maila altura ez iristen lagun dezakete, eta kolektiboak muturreko egoeretarako prestatzen.
- Premiazko erreakzio-neurriak: pertsona edo kolektibo baten aurkako gertakari larri bat gertatzean hartzen dira, haiek babesteko.
- 'Normaltasunera' itzultzeko neurriak: lanari berriro ekiteko balio dute, larrialdia gainditu eta pertsonaren eta kolektiboaren babes-egoera hobetzeko beharrezko zuzenketak egin ostean.

Garrantzitsua da azpimarratzea, beste behin ere, zertaz ari garen **babesa diogunean: norbanakoaz ez ezik, norbanako horren kolektiboaz**. Bestalde, garrantzitsua da ikuspegi zabala izatea eta gure azterketan familiak eta hurbileko ingurunea ere barne hartzea; izan ere, elkarrizketatutako defendatzaile batek aipatu zuen moduan, *"emakume asko geldiarazi dituzte 'segi mugitzen, segi gauzak egiten, horrela jarraitzen baduzu, zure alabak bortxatuko ditugu' esan dietelako"*. Azkenik, oso garrantzitsua da gogoan izatea **inplikatutako pertsona guztiek ados egon behar dutela edozein babes-neurri martxan jarri aurretik.**

Arriskuan dauden pertsona, erakunde eta komunitateekin elkarlanean aritzen garen gizarte-erakundeok martxan jar ditzakegun neurriak jaso ditugu premien azterketan. Proposamenak baino ez dira: ez dute zehatzak izan nahi eta testuinguruaren arabera aplikatu behar dira. Gogoratu proposatutako ezer ez dela egin behar ikuspegi 'kolonialista' batetik edo 'lezioak emateko' asmoz, baizik eta kolektiboen arteko senidetasunetik, berdintasunezko harremanetan ideiak, esperientziak eta gogoetak partekatzearen aldeko filosofiarekin.

6.1. PREBENTZIOA

Prebentzioa babesaren fase garrantzitsuentzat har daiteke; izan ere, babesaren oinarriak eraikitzen ditu, kolektiboak krisi-uneetara irits ez daitezen bilatzen du, eta, hari esker, giza eskubideen defendatzaileek ahalik eta lasaitasun handienaz jarraitzen dute lanean. Hori dela eta, azterketa hau beste faseena baino luzeagoa da; beste fase horiek, gainera, kolektiboek prebentzioaren arloan egindako aurretiazko lanaren araberakoak izango dira.

6.1.1. Antolaketa-alderdiak

Prebentzioari dagokionez, antolaketaren dimentsioan adierazitako premiek gai hauek izan dituzte ardatz: erakundeak sendotzea babesaren arloan (erabakiak hartzea, hausnarketarako eremuak…), bai eta testuinguru- eta arrisku-azterketak egiteko tresna eta metodologietan ere.

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen helburu nagusia erakunde edo komunitateen lana oztopatzea denez, funtsezkoa da lidergo kolektiboak sustatzea. Lidergoak banakakoak badira, eta dena –edo ia dena– pertsona baten esku badago, arriskua handiagoa da bai beretzat bai kolektiboarentzat. Errazagoa da pertsona

5 'Normaltasuna' aipatzen da, baina giza eskubideen defendatzaileek bizi duten egoera ez da normala eta ez lukete etengabe mehatxupean egon behar. 'Normaltasunera' itzultzea diogunean, arrisku-maila onargarri batera itzuli eta lanean jarraitu ahal izateaz ari gara.

horri eraso egitea, eta, halakorik gertatuz gero, erakunde edo komunitatearen lana izugarri ahultzen da. Aitzitik, lan kolektibo sendo bat baldin badago, zailagoa da banakako eraso bat gertatzea, eta, gertatuz gero, zailagoa da eraso horrek erakundearen edo komunitatearen lana geldiaraztea, lan kolektiboari eutsiko dioten pertsonen hainbat lidergo baitaude. Horri 'arriskua kolektibizatzea' esaten zaio, eta, seguruenik, arriskua txikiagotzea. Eraso-egileek erabaki dezakete kolektiboko pertsona bati ez erasotzea, eraso horrek izan ditzakeen arriskuak ez hartzea, berekin ekarriko dituen onurez ziur ez baldin badaude; hau da, ziur ez baldin badakite giza eskubideak defendatzearen aldeko lana geldiaraziko dutela. Alde horretatik, zenbait kolektibo eta erakundetan beharrezkoa izan daiteke lidergoak lantzea, bai eta aldarri publikoak, birak atzerrian, ordezkaritzak nazioarteko instantzietan… Ekintza zenbat eta kolektiboagoa izan, orduan eta zailagoa da –eraso-egileentzat– kate-maila 'ahula' identifikatzea. Arrisku-egoeran dauden kolektiboei laguntzen diegun erakundeok balioa eman behar diegu lidergo-mota horiei, eta, kolektiboen erabakietan esku hartu gabe, nazioarteko biretan kolektiboko hainbat kidek parte har dezaten sustatu.

Babesaren ikuspuntutik, erakundeak sendotzeaz hitz egiten dugunean azpimarratu nahi duguna da arriskua beti dela kolektiboa. Gizabanakoei zuzendutako mehatxuak egon arren, azken xedea beti da kolektiboaren lana geldiaraztea. Kolektibo baten barruan arrisku-maila desberdinak egon daitezke, baina kolektibo osoari dagokio. Kolektiboa bera, mehatxu-hartzaile izateaz gain, babes-iturri ere bada, harengana jotzen dutenentzat eremu seguru bat, segurtasun-sare bat. Hortaz, funtsezkoa da **pertsona guztientzako eremu seguru hori eraiki eta zaintzea**, eta horrek berekin dakar antolaketa-modu bat bilatzea pertsona bakoitzak senti dezan kideek entzun egiten diotela, balio-iritzirik eman gabe. Horrek berekin dakar, halaber, pertsonek sentitzea denen eraikuntza bat dela, eta ez egon litezkeen egoen arteko lehia bat.

Garrantzitsua da zera azpimarratzea: elkarrizketa askotan aipatu denez, kolektiboen barruan ez da genero-ikuspegirik egoten, eta, askotan, ez zaie balio bera ematen gizonek azaldutako segurtasun-azterketei eta emakumeek azaldutakoei. Elkarrizketatutako emakume batek uste du erakundeek maiz *"gertaeren larritasuna minimizatzen dutela, genero-aurreiritziak tarteko, emakume horiek histeriak jota daudela edo esajeratzen ari direla"*. Diskriminazioarekin eta emakumeen lidergoa ez onartzearekin lotutako arazoak ere aipatu dituzte, baita erakundeetako bertako kideek jazarri egin dituztela ere.

Bistan da erakundeak eta kideak botere-harreman matxista eta heteronormatiboetan oinarritutako sistema patriarkal baten parte direla. Hori dela eta, erakundeen barruan modu aktiboan landu behar da gai hau, babesa, batasuna eta kidearenganako konfiantza ardatz hartuta. Funtsezkoa da kolektiboa eremu segurutzat sentitzea.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Ez izan harremana kolektiboko pertsona batekin bakarrik. Normalean, kolektiboko pertsona batekin erlazionatzen gara (eta, adibidez, beti hura gonbidatzen dugu nazioarteko biretara). Garrantzitsua da kontuan hartzea harreman hori dibertsifikatu egin daitekeela, lidergo kolektiboak sustatuz.
- Sustatu errespetuaren, konfiantzaren eta genero-harremanen inguruko baterako hausnarketak kolektiboarekin. Galdetu nola dauden harreman-esparru horietan.
- Proposatu genero-ikuspegia duten erakunde horizontalei buruzko tailerrak edo tailerretarako baliabideak.

Erakundeak sendotzeari dagokionez, oso garrantzitsua da babesarekin eta segurtasunarekin lotutako **erabakiak adostasun bidez edo, gutxienez, modu partizipatiboan hartzea.** ANSUR kolektiboaren gidaliburuan aipatzen denez, ideia da *"aurretiazko barne-eztabaidak bermatzea eta erabaki politikoek edo eragin handikoek akordioak bilatzea eta adostasunen bidez hartzea"*[6]. Hain zuzen ere, hausnarketa- eta erabaki-prozesua modu partizipatiboan egiteak abantaila handiak dakartza babesari dagokionean: arrisku-mailaren kontzientzia-hartze kolektibo handiagoa, kolektiboan aldi berean dauden errealitate desberdinak kontuan hartzea (adibidez, askotariko postuak eta lidergoak, hainbat bizileku eta lan-eremu, genero-aniztasuna...), elkarren ezagutza eta babes handiagoa, errealitate indibidual bat ez ezik errealitate kolektibo bat eraikitzea.

6 ANSUR kolektiboa (2009).

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Errespetatu erakunde bakoitzak modu autonomoan aukera ditzan bere erabakiak hartzeko prozesuak, elkarbanatu esperientziak eta metodologiak gurekin elkarlanean aritzen diren beste erakunde batzuekin, babesaren gaiari buruzko eztabaida partizipatiboak antolatzeko. Orokorrean, azkar iristen gara ondorioztatzera garrantzitsua dela babesari buruz kolektiboki eztabaidatzea, baina erakunde batzuek ez dute esperientziarik erabaki partizipatiboak hartzen.
- Proposatu erabakiak adostasunen bidez hartzeari buruzko tailerrak edo tailerretarako baliabideak.
- Eztabaida hauetan, kolektiboak hausnartzeko une espezifikoak behar izan ditzake; hori dela eta, 'erretiroak' egiteko baliabideak eman dakizkieke.
- Izan elkarrizketa etengabekoa eta malgua kolektiboekin, ez soilik jarduerei eta proiektuen betearazpenari buruz, baita barne-sendotzeari eta kolektiboaren beraren egoerari buruz ere.

Testuinguruaren eta arrisku-mailaren azterketa dela eta, zera adierazi zuen elkarrizketatutako defendatzaileetako batek Internet bidez jasotako mehatxuei buruz: "Ez dakit neure burua arriskuan jartzen dudan, askotan ez baitugu jakiten benetan noraino iritsiko diren mehatxu horiek". Esaldi horrek agerian jartzen du kolektiboetan testuingurua eta arriskua aztertzeko metodologiak garatu behar direla giza talde bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, bai eta gai horien inguruko prestakuntza eta hausnarketa egiteko eremuak sustatu behar direla ere. Azterketa on bat gerora hartzen den erabaki ororen oinarria izango da, eta, beraz, babes-estrategien eraikuntzaren zimendua da. Azterketa horiek testuinguruaren, mehatxuen eta arrisku-mailaren beste ikuspuntu bat jaso behar dute, esperientziak erakusten baitu oso gutxitan egiten direla azterketa horiek genero-ikuspegiarekin.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Helarazi eskuliburuak eta jarri harremanetan gurekin elkarlanean aritzen diren kolektiboak, nork bere esperientzien eta metodologien berri eman diezaien besteei. Kolektibo askok, beren premia eta berezitasunetan oinarrituta, metodologiak sortu dituzte, egituraren, erabakiak hartzeko prozesuen, eta giza taldearen eta testuinguruaren ezaugarrien arabera. Hori dela eta, metodologia horiek trukatzea oso ekarpen garrantzitsua izan daiteke.
- Bilatu baliabideak (finantzarioak edo giza baliabideak) testuingurua eta arriskua aztertzeko tresna eta metodologien inguruko prestakuntza emateko.
- Gogoratu eremu horien garrantzia, eta ikusi erakundeak edo kolektiboak nola egiten dien jaramon. Askotan, larrialdien eta jardueren dinamika dela eta, eremu horiek alde batera uzten dira (premiazkoak garrantzizkoa irensten du).

6.1.2. Harremanekin lotutako alderdiak

Kolektiboko kideak lehenengo babes-sarea dira (eremu segurua eta konfiantzazkoa), baina beste kolektibo batzuk ere izan daitezke babes-sare. Hainbat metroko altueran dabilen gimnasta moduko bat litzateke: azpian hainbat sare trinko eta sendo baditu, lasaiago egingo ditu ariketak, sareetako bat nahikoa ez baldin bada azpian gehiago daudela jakinda. Ikusi dugu denbora eskaini behar zaiola kolektiboaren barruan konfiantzak eraikitzeari, baina oraindik eta beharrezkoagoa da **babes-sareak eraikitzeko estrategia argiak taxutzea**. Pertsona eta erakunde gehienek azpimarratzen dute sare horien garrantzia.

"Gertakariak gertatzean, sare horiek lagungarriak dira, ikusarazteko, salaketak egin ahal izateko".

"Sareek salbatzen dute".

"Inork ezin du emakume defendatzaileentzat babesa antolatu bakardadean, ezta erakunde bakar batek ere, hori ez da bideragarria. Gero eta garrantzitsuagoa da lotura-prozesuak egitea sare eta erakundeen artean".

Babes-sareei buruz hitz egiten dugunean, sare posible guztietan pentsatzen saiatu behar dugu, askotan babes politikoko sareak bakarrik etortzen baitzaizkigu burura (adibidez, gobernuak, enbaxadak, Nazio Batuak…). Babes-sareen hainbat maila bereiz daitezke:

- Defendatzailearen zuzeneko ingurunearekin lotutakoak: familiak, komunitateak, bizilagunek osatzen dituzte. Elkarrizketatutako defendatzaile baten arabera, *"komunitatea da lurralde-defentsa egiten duen kide baten hurbileneko babes-eremua"*. Defendatzaileek ez diote familiari kontatu nahi izaten zertan egiten duten lan eta zer mehatxu jasotzen dituzten. Estrategia-mota horiek ulergarriak dira, baina eragin negatiboa izaten dute: alde batetik, familia ez dago prest mehatxu horiek betez gero; eta, bestetik, ezin du defendatzailea babestu, ez baitaki zer ari zaion gertatzen.
- Kolektiboaren zuzeneko ingurunearekin eraikitakoak: antzeko gaietan lan egiten duten gertuko beste erakunde batzuek osatzen dituzte.
- Gaiei edo filosofiari dagokionez gertukoak baina geografikoki urrutikoak diren kolektiboekin eraikitakoak.
- Atzerriko gobernuen, enbaxaden, nazioarteko erakundeen… babes politikoa jasotzeko asmoz eraikitakoak.

Garrantzitsua da mailak bereiztea, kontuan hartuta, besteak beste, zer helburu duen sare horietako bakoitzak (hala nola erakundearen eginkizuna babestea, larrialdietan erreakzionatzea, ikusaraztea, lagun egitea…), zer konfiantza-maila dagoen, eta, beraz, zer informazio ematen den, zer espero daitekeen berariaz babesari dagokionean…

Prebentzio-fasean, sareak eraikitzea da garrantzitsuena, eta argi uztea nola babes dezakeen kolektiboa haietako bakoitzak hiru faseetako bakoitzean (prebenitzea, erreakzionatzea eta 'normaltasunera' itzultzea). Prebentzio-neurri batzuk har daitezke, hala nola hauek:

- Alerta-sistema goiztiarrak prestatzea: hedapen-sistema ezartzea, erakunde bakoitzak sarean duen rola zehaztea…
- Kolektiboarekiko babesa agerian jartzea: tokian tokiko misioak (kidego diplomatikoarenak, kideko erakundeenak…), sari-banaketak…

Eztabaida garrantzitsu bat islatu da hainbat elkarrizketatan, edozein ekintza abiarazi aurretik kontuan hartu beharrekoa: profil publiko altua ala baxua hartzea. Pertsona edo kolektiboen profila areagotzen duten neurriek arrisku handiagoan jar ditzakete, fokua haiengan jartzen baita. Bestalde, planteatu da profil altuak eragin babeslea ere baduela, pertsonak edo kolektiboak zenbateko babesa duen erakusten baitu. Ez dago erantzun bat eta bakarra; kasu bakoitzaren araberakoa izango da. Jakiteko, testuinguruaren eta arriskuaren azterketa on bat egin behar da. Geure buruari galdetu behar diogu profil baxu bat aukeratzea benetan posible ote den, aintzat hartuta norbaitek presioak edo mehatxuak jaso baditu eraso-egileek jada badakitela nor den eta non dagoen. Beste galdera bat da nazioarteko presioak eraginik izan ote dezakeen eraso-egileengan, eta, beraz, publikoki babesa erakustea behar besteko babesa ote den.

Laburbilduz, ekintza orok du eragina, bai profila igotzeak bai jaisteak. Eragin positibo zein negatibo horiek aztertu behar dira erabaki bat hartu ahal izateko. Defendatzaile askok aipatu zuten nazioarteko laguntzaren esperientzia positiboa.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Eman arlo berean lan egiten duten gertuko zein urrutiko beste erakunde edo sareen kontaktua.
- Eman gurekin lankidetzan aritzen diren erakundeei hausnarketa-eremuak eta kontaktuak.
- Erakutsi erakunde eta kolektiboak babesten ditugula, ez bakarrik diruz, baita politikoki ere.
- Eman nazioarteko erakundeen, kidego diplomatikoaren eta gobernuen kontaktuak, hala nola kolektiboen lana eta egoera agerian jartzeko eragile horiekin egiten diren bileretan.
- Eman kontaktuen eta nazioarteko laguntzako esperientzien berri.
- Lagundu hurbileko eragileei (hala nola gure herrialdeetako erakundeei) zuzendutako eragin politikoko dokumentuak egiten, hizkuntzak, mezuak eta abar moldatzeko.
- Lagundu baliabidez herrialdeko eta eskualdeko birak, sareak eraikitzeko.
- Argi utzi, haien babes-sareen parte garen aldetik, zein izan daitezkeen gure ekintzak eta rola kolektiboa babestean gerta litezkeen hainbat une eta egoeratan.

6.1.3. Alderdi psikosozialak

Elkarrizketetan eta foku-taldeetan azpimarratu zenez, “alderdi psikosozialak gehiago lantzea falta da”; eta kontuan hartzen badira, normalean, gertakari biolentoa gertatu ondoren izaten da. Lehen adierazi den moduan, estres- eta arrisku-mailaren ondoriozko eragin gehienak psikosozialak dira: konfiantza haustea, ahulezia, suminkortasuna, lo falta… Horrek esaten digu zer-nolako garrantzia eman behar diogun dimentsio honi prebentzioaren ikuspuntutik, babesaren mahaiaren beste 3 hankei bezalaxe.

Ezinbestekoa da defendatzaileek bizi dutena (hala nola beldurra, nekea, frustrazioa…) adierazteko eremu seguruak sortzea; eremu seguru horietan ez da epaituko, egoera enpatiaz baloratuko da eta hura hobetzeko irtenbide egokiak bilatuko dira. Alde horretatik, antolaketa-alderdiei buruzko atalean denontzat segurua den eremu hori eraiki eta zaintzeari buruz esandakoari helduko diogu. Bestalde, ziurtatu behar dugu **denbora hartzen dela kolektiboaren eta haren kideen egoera emozionala berariaz ebaluatzeko** eta mekanismo prebentiboak daudela egoera zailak identifikatzen direnean. Adibidez, azterketan parte hartu duen kolektibo batek ahulezia-prozesuei aurre egiteko prebentzio-neurri bat ezarri du: aldi baterako egonaldiak egitea eskualdeko aterpetxeetan. Ez dira egonaldi luzeak, baizik eta deskonektatzeko eta atseden hartzeko lekuak, lantzen zailagoak diren ahulezia-egoeretara ez iristeko. Landa-lanean jasotakoak erakusten digu defendatzaile askok beren bizitza soziala ‘galtzeko’ arriskua dutela, arrazoi asko direla eta (eremu publikoetara ateratzeak dakarren arriskuagatik eta gehiegizko lan-bolumenagatik, besteak beste). Beraz, jolas- eta aisia-eremu seguruak zaintzea ere bada funtsezko prebentzio-neurri bat.

Prebentzio-fase honetan, garrantzitsua da denbora hartzea **arreta psikosoziala premiaz behar den egoeretarako protokolo eta mekanismoak prestatzeko,** gertakari biolento bat gertatzen denerako edo ahuleziari aurrea hartzeko. Funtsezkoa da kolektiboko kideengan pentsatzea, haien zirkulu afektiboa barne, haiek ere jasan baititzakete ondorioak.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Eman kolektiboari gurekin elkarlanean aritzen diren beste erakunde batzuk garatzen ari diren laguntza eta kudeaketa psikosozialeko esperientzien berri.
- Barne hartu alderdi psikosozialak aurrekontuetan, gurekin lankidetzan aritzen diren erakundeekiko harremanean eta gure erakundean bertan.
- Eman kontaktuak eta baliabideak autozainketa emozionalerako eta zainketa kolektiborako tresnei buruzko tailerrak egiteko.
- Eman kontaktuak eta baliabideak larrialdietarako alderdi psikosozialei lotutako erreakzio-sare bat eraikitzeko.
- Sustatu kolektiboaren egoera emozionalari eta prebentzio-estrategiei buruz hausnartzeko eremuak.
- Sustatu zainketaren ikuspegi feminista txertatu dadin gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeetan eta gure kolektiboan bertan.

6.1.4. Segurtasun-neurriak

Testuinguruaren, ahulezien eta gaitasunen, eta, beraz, arrisku-mailaren gure azterketarekin lotuta, prebentzio-fasean **segurtasun- eta babes-protokoloak egin** behar dira. Protokolo horiek bi bloke handitan daude banatuta:

- Gorabeheretarako erreakzio-protokoloak: protokolo hauek egiteko, kolektiboak eta pertsonak zer mehatxu jaso ditzaketen edo zer egoera zailetan egon daitezkeen zerrendatu behar da, eta pertsonak eta kolektiboak zer berehalako erreakzio izan behar luketen definitu, baita epe ertaineko erreakzioak ere. Gerta litezkeen gorabeheren adibideak: kalean jazartzea, indarkeria sexuala, bulegoan indarrez sartzea, posta elektroniko bidezko mehatxuak…

- Protokolo 'estrukturalak' edo 'prestakuntzakoak': kolektiboaren jarduerak (bidaia bat, ekitaldi bat…) eta beste gai estruktural batzuk (segurtasun informatikoa, babes-arloko prestakuntza…) babestu eta prestatzeko moduari buruzkoak.

Ezin da segurtasun-neurri prebentiboen arloko premien zerrenda zehatz eta generiko bat egin, testuinguruaren eta kolektiboaren erabakien araberakoa izaten baita (adibidez, erakunde batzuek erabaki dezakete ate blindatuak jartzea bulegoetan, baina beste batzuek ez dute halakorik egiten, biktimekiko harremana errazteko). Hala eta guztiz ere, erabaki kolektiboetara iristeko, ezinbestekoa da hausnarketa- eta eztabaida-lana egiteko denbora hartzea, eta, beharrezkotzat joz gero, arloan adituak diren pertsonen laguntzaz. Protokoloak definitutakoan, garrantzitsua da kolektiboko pertsonak –eta, beharrezkoa izanez gero, haien ingurune afektiboak– **prestatzeko denbora hartzea**, simulazioak eginez eta protokoloak zabalduz. Elkarrizketatutako erakundeetako batek adierazi zuen erakundeek *"larrialdi-egoera bat gertatzen denerako segurtasun-plan bat egiteko entrenamendua eta prestakuntza"* eskatu ohi dutela. Zenbait neurri-motak (bulegoa edo komunikazioak zaintzearekin lotutakoek, batez ere) baliabideak eskatzen dituztenez, *"bulegoetan neurri fisikoak instalatzeko diru-laguntzak"* behar dituztela azaldu dute elkarrizketatutako askok.

Beste neurri-mota bat da babeserako legeak eta mekanismo ofizialak ezartzea. Zenbait herrialdetan balorazio desberdinak jasotzen ditu segurtasun-neurri horien ezarpenak eta eraginkortasunak, batez ere bi baldintza hauen arabera: estatuek borondate politikoa duten ala ez, eta estatuek jazarpenaren eragileekin ez ikusiarena egiten duten ala ez. Mekanismo horiek ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia integratzearen premia ere azpimarratu da.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Lagundu hausnartzen eta protokoloak egiten, galderak eta iruzkinak eginez eta beste erakunde edo kolektibo batzuen esperientziak azalduz.
- Eman baliabideak protokoloak egiteko beharrezkoak diren eztabaidak antolatzeko.
- Eman baliabideak kolektiboak erabakitako neurriak ezartzeko, prestakuntza-premiak barne.

6.2. ERREAKZIO BIZKORREKO NEURRIAK

Erreakzio bizkorreko unean, erakundeek prebentzio-fasean planifikatutakoa ezarri ohi dute. Erantzun horiek gorabehera-motaren arabera diseinatzen dira.

6.2.1. Antolaketa-alderdiak

Erreakzio bizkorreko fasean, kargudunen berehalako erreakzioa gertatzen da aurrena. Lehenengo une horren helburua da **pertsonak salbu edukitzea** krisi-egoeretan, aurrez definitutako estrategia eta protokoloen arabera. Garrantzitsua da sistema bat izatea (dokumentu informatiko bat, arbel edo papelografo bat horman) burututako ekintzen memoria historiko bat erregistratzeko: telefono-deiak, Whatsapp bidezko elkarrizketak, konpromisoak… Sistematizazio hori garrantzitsua da jakiteko zer egin dugun eta zer falta zaigun egiteko. Behar-beharrezkoa da ekintzetan parte hartzen duen edonor azkar batean informatu ahal izateko, kolektiboko pertsona bakoitzarekin hitz egin beharrik izan gabe, eta funtsezkoa da, halaber, bigarren hausnarketa-faserako. Bestalde, garrantzitsua da baten bat arduratzea premiazko erantzuneko ekintzetan zuzenean parte hartu ez duten kolektiboko kideak informatzeaz.

Erreakzio bizkorreko fasearen bigarren unean, berriz, **bildu eta nola erreakzionatzen jarraitu hausnartu behar da. Fase honetan**, informazioa izatea berebizikoa da erabakiak hartzeko, eta, beraz, eraginpeko pertsonekiko komunikazio-bideak zaintzea ere bai.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Parte hartu adostutako protokoloak (baten bat adostu badute) ezartzen.
- Proposatu gurekin elkarlanean aritzen diren kolektiboen komunikazio-bideak hobetzeko baliabide espezifikoak.
- Izan malgua gainerako jardueren ezarpenari dagokionez, eta utzi hausnarketarako eta epe ertainerako erreakzio baterako azterketarako eremuak.
- Ez eman lan-karga handiagoa (adibidez, ez deitu etengabe kolektibora haren berri jakiteko).

6.2.2. Harremanekin lotutako alderdiak

Fase honetan, garrantzitsua da prebentzio-fasean eraiki ditugun sareak erabiltzea. Landa-lanean, babes-harremanen adibide gisa aipatzen da nazioarteko laguntza (gertakarien lekura joatea, erasoa jasan berri duen pertsonaren etxera gerturatzea). Lehenago adierazi dugun moduan, lehenik eta behin eraginpeko pertsona babestu behar da (ez bakarrik utzi, babestuta egon dadila).

Gero, hausnartu eta eztabaidatu behar da sareak nola erabiliko diren, salaketa publikoa egingo den, erasotutako pertsona edo kolektiboaren profila igo behar den, nazioarteko komunitateari ohartarazi behar zaion. Prebentzio-fasean aipatu den bezalaxe, zer sare-mota ditugun eraikita eta zer konfiantza-maila sortu dugun, premiazko ekintzak eskatzeko, edo, besterik gabe, gertatutakoaren berri emateko informatuko dugu. Sareei eskatuko dizkiegun erantzunak aldatu egingo dira testuinguruaren, gorabeheraren, konfiantza-mailaren… arabera; hala ere, elkarrizketa eta foku-talde guztietan azpimarratu zutenez, babes-premiak betetzeko funtsezkoa da sareak izatea, erasotutako pertsonari eta kolektiboari une zailetan laguntzeko.

Noski, prebentzio-fasean sarerik eraiki ez duten kolektiboek ez dute jasoko aurretiazko lan hori egin dutenek bezainbesteko erantzun-maila.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Erasotutako pertsona eta kolektiboen profil publikoa igo nahi bada, zabaldu salaketa publikoa, eta egin eskaerak bereziki interesatzen zaizkigun eragileei (batik bat atzerriko gobernuei eta tokian dituzten enbaxadei).
- Informatu gurekin elkarlanean aritzen diren gainerako sareei eta eman kasuaren berri, kolektiboak hala nahi badu.

6.2.3. Alderdi psikosozialak

Erasoen eragin zuzena jasan duten pertsonei babesa eta laguntza ematearen garrantzia aipatu dute elkarrizketa eta foku-taldeetan. Hasieran, erabaki eta ekintza bizkorrak hartu behar dira kolektiboko kideen segurtasuna bermatzeko, eta kaltetuen daudenekin lan egingo duten eta tentsioa murrizten saiatzeko uneak bilatuko dituzten pertsonak behar dira. Denek izan dezakete zeregin bat. Ekintzen zurrunbiloan zuzenean sartuta ez daudenak giroa zaintzen saiatu daitezke; esate baterako, premiazko ekintzetan ari direnei jan-edana eramateaz arduratu daitezke.

Bigarren une batean eseri eta **autozainketarako eremu zabalago** bat lortu behar da, kolektiboko pertsona bakoitzak bere sentimenduak eta egoera emozionala parteka ditzan gainerako kideekin. Eragin zuzena jasan dutenek ez ezik, besteek ere izan dezakete eremu horren beharra, kolektiboko kide guztiei eragin baitiezaieke beste pertsona bati gertatutakoak. Ekintzetan sartuta egon ez direnek gertatutakoa ulertzeko beharra izan dezakete. Funtsezkoa da, halaber, eraginpeko pertsonen ingurune sentimentala eta emozionala kontuan hartzea.

Une batean zein bestean da garrantzitsua pertsonei errua ez leporatzea. Gero, egindakoa ebaluatu behar da, beste modu batera egin genezakeen aztertu, baina erantzun bizkorreko fase hau ez da horretarako une egokia. Geure burua zaintzeko unea da, gure emozioak eta beldurrak adieraztekoa, eta arriskuaren aurrean bat eginda dagoen kolektibo gisa sendotzekoa. Garrantzitsua da hori argitzea, gaur egun ohikoak baitira *"guardia jaitsita nengoen", "oporretan nengoen eta ez nengoen adi", "ez nuen hura egin behar"* eta halako esaldiak. Garrantzitsua da horrelako komentarioak alde batera uztea, geroko azterketan esaten badira ere.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Izan proaktiboak eta galdetu zer moduz dauden kolektiboko pertsonak. Adibidez, jakinarazi kolektiboari beharra duen edonorekin hitz egiteko prest gaudela.
- Eman baliabide espezifikoak, krisi-egoerez arduratuko diren pertsona espezializatuengana jo ahal izan dezaten.

6.2.4. Segurtasun-neurriak

Gorabeheraren arabera, segurtasun-neurriak nabarmen aldatu daitezke. Segurtasunarekin lotutako gertakari larri bat gertatu eta berehala, erasotutako pertsonen bizia babestea da helburu nagusia. Agian, pertsona hori dagoen lekutik berehala eraman egin beharko dugu (aterpetxe batera, kideren baten etxera, kideko erakunderen baten etxera…), edo denbora guztian nazioarteko erakundeekin, beste erakunde nazional batzuekin edo kidego diplomatikoarekin egon dadin saiatu. Kasu gehienetan, segurtasunaren arduradun diren erakunde ofizialen erantzun egokia ere bilatuko dugu.

Bigarren fasean, hurrengo urratsak definituko dira azkar-azkar: pertsona edo kolektiboaren profila igo edo jaitsi, erasotutako pertsonak lurraldetik atera, segurtasun-neurrietara jo –auto blindatuak edo eskoltak, adibidez–, eremutik 'aldi batez' atera berriz itzultzeko baldintzak eraikitzen diren bitartean.

Aldi baterako birkokapen-programei dagokienez, elkarrizketa eta foku-taldeetan adierazi zen, argi eta garbi, herrialdetik ateratzeak azken aukera izan behar duela, eta pertsonei giza eskubideen alde lanean jarraitzen eta lurraldean bertan geratzen uztera bideratu behar direla ahalegin guztiak. Hasieran aipatu den moduan, edozein erabaki eraginpeko pertsona guztiek batera hartu behar dute, egoeraren eta irteera posible baten ondorioen (bai positiboena –atseden hartzea edo sare berriak eraikitzea– bai negatiboena –deserrotzea edo abandonu-sentimendua, besteak beste–) baterako azterketa bat eginez. Oso desberdina da lurraldetik atera baina herrialde berean geratzea, herrialdetik atera baina eskualde bereko beste leku batera joatea, edo eskualdetik kanpoko atzerriko herrialde batera joatea.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Eduki baliabide espezifiko eta malguak erakundeetako kideak babesteko, kolektiboak identifikatutako premien arabera (adibidez, hotel batean logela seguru bat hartzea edo konfiantzazko garraioa alokatzea).
- Aldi baterako birkokapen-programa eskainiz gero, adierazi argi eta garbi zer eskaintzen den eta zer ez, zer zailtasun izan ditzaketen pertsonek eta zer proposatzen zaien harrerak iraun bitartean.

6.3. 'NORMALTASUNERA' ITZULTZEKO NEURRIAK

Ez dago etengabe larrialdi-egoeran egon daitekeen pertsona edo erakunderik. Baina ez da igaro behar larrialdi-egoera batetik 'normaltasun'-egoera batera trantsizio hori gertatzeko neurririk hartu gabe. Berehalako larrialdia igarotakoan, 'normaltasunera' itzultzeko prozesu baterako neurriak ezarri behar dira. Pertsonaren eta kolektiboaren babes- eta segurtasun-baldintzak hobetzea da helburua. Fase hau lehenbiziko prebentzio-fasearekin dago lotuta, krisi batetik igaro eta hura aztertu ostean.

6.3.1. Antolaketa-alderdiak

Berriz diogu **testuingurua aztertu** behar dela, baita zein izan diren larrialdiaren gertakariak, gure prebentzio-neurrietako zeinek funtzionatu duen eta zeinek ez, edo zein ez den izan nahikoa. Bestalde, gure erreakzionatzeko modua ere aztertu behar dugu: egoera hori aurreikusten genuen, aurreikusita genuena egin dugun ala ez, zerk funtzionatu duen eta zerk ez, zer aldatu den benetan, zer aldatu edo eguneratu beharko genukeen.

Kolektiboko pertsona batzuek eskualdetik joan behar izan badute, haiek ere eztabaida, azterketa eta erabakietan parte hartzeko modua bilatu behar da.

Garrantzitsua da lan hori modu parte-hartzailean egitea, eta kolektiboko pertsonaren batek ez baldin badu parte hartzen ariketa horretan, funtsezkoa da egindako hausnarketak eta hartutako erabakiak berehala sozializatzea.

Behin baino gehiagotan aipatu den moduan, defendatzaileen aurkako erasoak kolektiboaren aurkako erasoak ere badira, eta haren lana mugatu eta blokeatu nahi izaten dute. Hori dela eta, erasotutako pertsona eremutik ateratzea erabaki bada ere (edo beste edozein neurri), kolektiboak haren lanarekin jarraitzen duela ikusaraztea ere babes-iturri bat izan daiteke. Zehatz-mehatz, eskualdetik joan behar izan duten pertsonak itzul daitezen lor daiteke, erakusten ari baikara lana ez dagoela haien esku bakarrik; haiei edozer gertatuta ere, lana ez dela gelditzen.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Lagundu lanean jarraitzeko beharrezko baldintzak izaten; adibidez, baliabide gehiago behar izan ditzakete langileei laguntzeko, 'normaltasunera' itzultzeko neurriak pentsatu eta ezartzen emandako denboragatik.
- Lagundu normaltasunera itzultzeko neurriak pentsatzeko denbora hartzearen beharrari buruz hausnartzen, betiere kolektiboak egin nahi duena errespetatuz.
- Kolektiboko defendatzaile bat gurean hartuz gero, izan ditzala kolektiboaren eztabaidetan parte hartzeko beharrezko baldintzak; adibidez, bilatu behar adina tarte bere agendan eta bermatu baldintza materialak.

6.3.2. Harremanekin lotutako alderdiak

Sareek nola erreakzionatu duten **aztertzeko** unea da, sare horiek **sendotu** eta berriak **eraikitzeko**, batez ere pertsonaren bat aldi baterako birkokapen-programaren batean baldin badago beste herrialde batean. Fase honetan, babes-sareak ezinbestekoak dira segurtasun-baldintzak hobetu eta kolektiboaren lanarekin aurrera jarraitu ahal izateko, bertako zein nazioarteko segurtasun-arloko **agintariengan presioa egin** baitezakete. Une honetan, prebentzio-fasean proposatutako estrategiei helduko diegu berriz ere (adibidez, kidego diplomatikoaren misioak, eragina duten pertsonei babesa erakusteko). Elkarrizketatu batek kasu zehatz bat komentatuz esan zuen moduan, *"abokatu-kolektibo bati laguntzen diogu; enbaxadoreen bisitak izaten dituzte beren bulegoan eta sariak jasotzen ari dira munduko zenbait lekutan. Neurri batean, babes-maila handia dute. Handia, ez soilik jende askoren babesa dutelako, baizik eta herrialdean garrantzi handia duen jendearen babesa dutelako, hala nola Estatu Batuetako enbaxadorearena".*

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Parte hartu ebaluazioan; horretan, barne hartu jardueraren beraren balorazioa, onartu akatsak eta mugak, eta pentsatu zer egin daitekeen etorkizunean.
- Lagundu sare berriak sendotzen eta sortzen; esate baterako, birak antolatuz edo babes-arloan giltzarri diren eragile instituzionalekin eta gizarte-mugimenduarekin bilerak antolatuz.
- Kolektiboak hala nahi badu, lagundu giltzarri diren eragile politikoen ageriko babesa lortzen aldi baterako birkokapen-programetan daudenak itzul daitezen, azterketan beti barne hartuta zein den kolektibo osoaren egoera.

6.3.3. Alderdi psikosozialak

Fase honetan oso garrantzitsuak dira alderdi psikosozialak, **esperientzia egiteko** unea baita, edo, elkarrizketatutako giza eskubideen defendatzaile batek esan zuen moduan, *"nork bere burua pertsona gisa berreraikitzekoa"*. Gainera, taldearen kohesioa, beldurrak, konfiantza… lantzeko unea ere bada.

Antolaketa-alderdien kasuan bezalaxe, lan kolektibo honetan aldi baterako birkokapen-programetatik atera diren pertsonek parte hartu behar dute, ez daitezen kolektibotik kanpo sentitu. Hainbatek adierazi dute erbestetik kolektiboaren lanean erabilgarri sentitzeko beharra dutela, eta hori oso elementu garrantzitsua da herrialdetik joan behar izana jasateko, kausa alde batera utzi ez dela eta giza eskubideak defendatzeko lanean jarraitzen dela sentitzeko.

Norbanakoei dagokienez, **laguntza espezifikoak** behar izan ditzakete pertsona kaltetuenek, bai eta beren lan- eta bizi-eremutik joan behar izan dutenek ere, potentzial traumatiko altuko egoera bat baita; esaterako, lurralde batetik derrigorrez joan behar izatea, norbere bizi-ingurunetik aldentzea, kultura-talka, kolektiboko gainerako kideak eta komunitateko pertsonak abandonatu izanaren sentimendua, bidegabekeria- eta inpotentzia-sentimenduak.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Eduki baliabide espezifikoak laguntza psikosoziala emateko bai kolektiboari bai norbanakoei, baita eskualdetik joan behar izan dutenei ere.
- Aldi baterako birkokapen-programa bat eskainiz gero, eman denbora pertsonei dolua egiteko, urrutitik kolektiboaren parte izaten jarraitzeko modua bilatzeko, jardueren zurrunbiloan murgildu aurretik.

6.3.4. Segurtasun-neurriak

Azterketaren ondoren, lehendik sortutako edo planifikatu gabeko **protokoloak moldatu** behar dira. Zerk funtzionatu duen eta zerk ez identifikatu ostean, babes-estrategiak moldatu eta neurriak egokitu behar dira; besteak beste, fisikoak.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Parte hartu babes-estrategiei buruzko analisietan.
- Eduki baliabide espezifiko baina malguak, kolektiboak bere kideak babesteko identifikatutako premien eta protokoloen moldaketaren araberakoak.

6.3.5. Inpunitatearen aurkako borroka eta memoria historikoa

Inpunitatea da giza eskubideen defendatzaileen, haien kolektibo eta komunitateen aurkako erasoak errepikatzearen kausa nagusietako bat. Inpunitatearen aurkako borroka-prozesuei eta memoria historikoko prozesuei zor diegu eraso horiek ez errepikatzea. Memoria historikoari esker, gainera, eraso eta indarkeriaren kausa estrukturalak aurkitu eta agerian jar daitezke.

Babesaren kontzepzio integral batetik, fase honetan has daiteke inpunitatearen aurkako prozesu judizialak eta memoria historikoa berreraikitzeko prozesuak aurreratzen. Elkarrizketatutako hainbat pertsonak adierazi dute beharrezkoa dela *"egiaren alde borrokatzea"* eta *"gertatzen ari dena azalduko duen diskurtso bat"* eraikitzea.

Nola lagun diezaiekegu gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeei?

- Babestu memoria historikoa eraikitzeko prozesuak edo prozesu judizialak, kolektiboak berak gertatutakoaren kontakizuna agerian jarri ahal izan dezan.

7. ZENBAIT GOMENDIO

- Eraiki aurretiazko konfiantza gure kolektiboaren eta gurekin elkarlanean aritzen diren kolektiboen artean, parekoen arteko senidetasunezko harreman batean oinarrituta; harreman horri esker, eztabaidetan parte hartzean ez dugu gehiegi esku hartuko eta ez ditugu gure ikuspegiak inposatuko.
- Ez indibidualizatu borrokak; aitzitik, egin lan kolektiboaren eta haren eraikuntzaren alde, bai eta babes-sare zabalak sortzearen alde ere.
- Parte hartu testuinguruaren azterketetan, gure kanpoko ikuspegitik hausnarketa-elementuak proposatuz, edo, ezjakintasunetik, hausnarketarako galdera motibatzaileak eginez.
- Parte hartu segurtasun-protokoloak egiten.
- Lagundu alderdi psikosozialak eta harremanei lotutako alderdiak barne hartzen hiru faseetan, batez ere prebentziokoan. Askotan, erakundeek erreakzionatu egiten dute larrialdi-egoeretan, baina, esperientzia hori baliatuta, ez dute prestatzen eraginak kudeatzeko eta babes-faktoreak sendotzeko estrategiarik.
- Lagundu ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia barne hartzen, geure ezagutzetatik abiatuta edo galderen bidez hausnarketa motibatuz.
- Izan oso malgua babesa eta baliabideak proposatzeko garaian. Egoera guztiak dira desberdinak, ez dago errezeta magikorik, nonbait edo noizbait funtzionatu zuen zerbaitek ez du zertan orain funtzionatu behar.
- Ez hartu erabakirik eta ez aurreratu ekintzak aurrez eraginpeko pertsona edo kolektiboei kontsultatu gabe eta ekintza horiekin lortu nahi diren eta lortu nahi ez diren eraginak aztertu gabe.

8. KONTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- ANSUR kolektiboa (2009): *Tejidos de protección*. Bogota.
- ANSUR kolektiboa (2014): *Cartilla de protección: Caminando hacia la protección de defensoras y defensores de personas migrantes.* Consejería de proyectos / Project Counselling Service (PCS), Bogota.
- Asia Pacific Forum on Women, Law and Development (2007): *En Defensa de las Mujeres que Defienden los Derechos: Guía para Defensoras de Derechos Humanos.* Txiang Mai.
- Asociación para los Derechos de la Mujer y el Desarrollo (2011): *Respuestas urgentes para las mujeres defensoras de los derechos humanos en riesgo: mapeo y evaluación preliminar.*
- Bennett, Karen; Ingleton, Danna; M. Nah, Alice; eta Savage, James (2015): *Critical perspectives on the security and protection of human rights defenders.* The International Journal of Human Rights.
- Eguren, Luis Enrique; eta Caraj, Marie (2009): *Nuevo manual de protección para los defensores de derechos humanos.* Protection International, Brusela.
- Eguren, Luis Enrique; eta Patel, Champa (2015): *Towards developing a critical and ethical approach for better recognising and protecting human rights defenders.* The International Journal of Human Rights.
- Europar Batasuna (2008): *Europar Batasunaren zuzentarauak giza eskubideen defendatzaileei buruz. Babesa bermatzea.*
- Front Line Defenders (2017): *Informe anual sobre defensores/as de derechos humanos en riesgo de 2017.* Dublin.
- GHK Consulting - HTSPE (2012): M*apping of temporary shelter initiatives for Human Rights Defenders in danger in and outside the EU. Final Report.* Londres.
- Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordea (2015): *Criminalización de la labor de las defensoras y los defensores de derechos humanos.* Amerikako Estatuen Erakundea.
- IM-Defensoras (2015): *Agresiones contra defensoras de derechos humanos en Mesoamérica. Informe 2012-2014.*
- Jones, Martin (2015): *Protecting human rights defenders at risk: asylum and temporary international relocation.* The International Journal of Human Rights.
- Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioa (2007): *1257/2007 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, Espainiatik kanpoko beren ohiko bizilekuetan giza eskubideak defendatzeagatik mehatxatuak edo jazarriak diren pertsonei zuzenean laguntzak emateko arauak onartzen dituena.* Estatuko Aldizkari Ofiziala, 238. zk.
- Martín, María (2015): *Criminalización de Defensoras y Defensores de Derechos Humanos: Categorización del fenómeno y medidas para su afrontamiento.* Protección Internacional, Guatemala.
- Martín, María (2016): *El enfoque de género en la protección a defensoras de derechos humanos: Las experiencias de México y Honduras.* Asociadas por lo Justo (JASS), Centro por la Justicia y el Derecho Internacional (CEJIL) eta Protection International.
- Mugarik Gabe (2015): *Con las Defensoras: Emakumeon Eskubideen Alde.* Taller Defensoras de Derechos Humanos. Basauri.
- Nazio Batuak (2007): *Norbanakoek, taldeek eta erakundeek giza eskubide eta oinarrizko askatasun unibertsal aitortuak sustatzeko eta babesteko duten eskubide eta betebeharrei buruzko adierazpena.* Batzar Nagusia, A/RES/62/152.
- Nazio Batuak (2016): Ebazpen-proiektua: *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen arloan lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak babestea.* Batzar Nagusia, A/HRC/31/L.28.

- Nazio Batuak (2016): *Gizarte zibilarentzat segurua eta aproposa izango den ingurune bat sortu eta mantentzeko gomendio praktikoak, jardunbide onak eta ikasitako irakaspenak oinarri hartuta: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoaren txostena.* Batzar Nagusia, A/HRC/32/20.
- Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa (2004): *Human rights defenders: protecting the right to defend human rights.* Fact sheet, 29. zk. Geneva.
- NBE Emakumeak & IM-Defensoras (2016): *NBEren Batzar Nagusiaren ebazpena giza eskubideen eta emakumeen eskubideen defendatzaileen babesari buruz.* Mexiko.
- Nesossi, Elisa (2015): P*olitical opportunities in non-democracies: the case of Chinese weiquan lawyers.* The International Journal of Human Rights.
- Protection International (2009): *Manual de Protección Para Defensores LGBTI.*
- Protection International - UDEFEGUA (2011): *Medidas de Protección Personales y en el Hogar para Defensoras y Defensores de Derechos Humanos.* Cuadernos de Protección, 3. zk. Guatemala.
- Protection International - UDEFEGUA (2011): *Vigilancia y Contravigilancia para Organizaciones Defensoras de Derechos Humanos.* Cuadernos de protección, 2. zk. Guatemala.
- Protection International (2014): *Estigmatización y criminalización de las defensoras y defensores de derechos humanos.* Cuadernos de protección, 5. zk. Guatemala.
- Roudil, Sophie (2009): *Repères pour l'observation des Procès en Matière Pénale.* I. liburukia. Protection International, Brusela.
- Van der Vet, Freek; eta Lyytikäinen, Laura (2015): *Violence and human rights in Russia: how human rights defenders develop their tactics in the face of danger, 2005–2013.* The International Journal of Human Rights.

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea